

4 EURO • 2013KO EKAINA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

hh
hik hasi

179



GAIA: 0-3KO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • ELKARRIZKETA: GURUTZE EZKURDIA
• PARTAIDETZA (eta IX) • HIK HASIREN JARDUNALDIAK • 'NI ETA NIRE
INGURUNEA' • GURASOAK IRAKASLE • GALDEIDAZUE: OIHANA JAUSORO-EMUN
• BEIREKO ATERPETXEA • AINHOA AGIRREAZALDEGI



OPORRETAKO KOADERNOAK

Udan ondo pasatzen jarraitu



ikasElkar

www.ikasElkar.com



aurkibidea



10
gaia

0-3 ETAPARAKO FORMAZIOA

Datorren ikasturtean 0-3 adin tarteko haurren hezitzaileentzat formazioa eskainiko du hik hasi-k. Emmi Pikler eta Loris Malaguzziren teoria pedagogikoen inguruan ardazturiko formazio-egitaraua izango da, eta formazio pertsonalak ere tarte garrantzitsuak izango du. Juanjo Quintela, Alfredo Hoyuelos eta Alvaro Beñaran izango dira ikasleroen arduradunak.



16
elkarrizketa

GURUTZE EZKURDIA

Leioako Irakasleen Eskola zuzendaria da 2010. urteaz geroztik, baina guztira 30 urte inguru egin ditu ikastegi horretan lanean. Euskararen erabilera eta kulturaren transmisioa dira, Ezkurdia iritziz, hezkuntzak etorkizunari begira dituen erronka nagusiak. "Hemengo gatazkarik handiena ez da politikoa, kulturala baizik".

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEENTZAKO FORMAZIOA Etapa garrantzitsu baterako formatzen

16 elkarrizketa

GURUTZE EZKURDIA Leioako Irakasleen Unibertsitate Eskolako Zuzendaria

23 PARTAIDETZA (eta IX)

30 esperientziak

ESKOLA HERRITARRA, HERRI HEZITZAILEA jardunaldiak 'NI ETA NIRE INGURUNEA'. AISIHEZI AISIALDI ELKARTEA GURASOAK IRAKASLE. LEKEITIOKO ESKOLA

34 galdeidazue

Aniztasuna arazo gisa ikusi beharrean aukera gisa kudeatu ahal izateko, ze baliabide ditugu irakasleok?

OIHANA JAUSORO- EMUN

40 nora joango gara?

BEIREKO ATERPETXEA Bizipenetatik ingurunea ezagutzeko parada

42 Atzeko atetik **AINHOA AGIRREAZALDEGI**

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofii, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Tema Garzia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2013-06-04). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan,
jardunaldietan eta argitararaten
ditugun gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

ekaina

Alternatibak eraikitzen


“Ze hezkidetzta maila, ze balio konpartitu, ze jai giro, ze lan sistema, ze justizia sozial, ze kontsumo eredu, ze demokrazia eredu, ze nortasun adierazle... Umeak kontuan hartu gabe nola antola daiteke ezer eurentzat? Ze leku egin nahi diegu umei gure gizartean? Ze parte hartze eremu ukatzen diegu? Umeak ukatzearekin geure buruari eta geure gizarte ereduari ze ukatzen diogu?”

Orain kendu ‘ume’ hitza, eta jarri ‘ni’ eta ‘zu’, ‘gu’ ondoren, eta ‘komunitatea’ hurrena. Gutaz ari gara. Gugintzaz”.

Lorea Agirre kazetari eta ikerlariaren hitzak dira. Tonucciren *La Città dei bambini* liburuaren euskarazko bertsioaren hitzaurrean idatzi dituenak. Galdera horiei erantzuna bilatzera bostehun lagunetik gora batu ziren **hik hasik** antolaturiko *Herri hezitzailea, eskola herritarra* jardunaldietan.

Egun horietan, zehazki, Espainiako Gobernuak LOMCE Hezkuntzarako Lege Erreforma onartu behar zuen —azkenean astebez atzeratu zen—. Neurririk hartu ezean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ikastetxetan ondorio zuzenak izango dituen lege neoliberal, elitista eta atzerakoiaren aurrean, bestelako eskola eta herri ereduak pentsatzera bildu ginen Kursoalen.

Ehunka hezitzaile eta irakasle bildu ziren jardunaldietan, baina pozgarria izan



zen, halaber, psikologoak, soziologoak, udaltzainak, arkitektoak, udal zinegotziak, hainbat alorretako teknikariak, artistak, ingeniariak, ekonomilariak eta gurasoak Kursoalera batu izana, Euskal Herriko esperientziak ezagutzera eta Francesco Tonucciren proposamen pedagogiko eta politikoa entzuteratzen.

Haurra erdigunean jarriko duen hiri ereduaren proposamena aurkeztu zuen Tonuccik, haurraren beharrak eta premiak entzuten eta asetzen dituen herri ereduak emakume, adineko, ezindu, etorkin, gazte... hau da, pertsona guztien beharrak aseko baititu. Eta herriak bezala, haur guztiek lekua izango duten eskola bat planteatu zuen, —Wertzen eskola elitistaren guztiz bestelakoa, noski—. “Eskolak gutxi batzuentzako izaten jarraitzen du, baina denei eskaintzen zaie. Horrek frustrazioa sortzen du, gehienek ez baitute jasotako mezua ulertzen.

Hezitzaile eta irakakasleez gain, udal teknikariak, arkitektoak, gurasoak... elkartu ziren hik hasi-ren ‘Herri hezitzailea, eskola herritarra’ jardunaldietan, haurra erdigunean jarriko duten herri- eta eskola-ereduak pentsatzeko

Guztientzako eskola bat nahi badugu, haurrei ezer proposatu ordez haurrei entzun egiten dien eskola bat egin behar dugu. Haurrak hartzen dituen eskola bat izan behar du, haurrek duten historia, kultura, ezagutza, bizipenak hartzeko prest egon behar duen eskola”.

Iraultza bat proposatzen du Tonuccik, Agirrek dioen moduan: Haurra komunitatearen zentroan jartzea, haurrak subjektu politiko bilakatzea. “Umeei hitz egiteko aukera ematea, helduen kontraesanak biluzian uztea da, geure nekeei ahotsa ematea, logikotzat jotzen dugun absurdo horri izena jartzea, bizi dugun gizarte gaixoari diagnostiko egoki bat egiten hastea. Baina ez da hori bakarrik. Demokrazia praktikatzea da, parte hartze modu errealek praktikan jartzea.”

“Etorkizuna ez badugu orain eta hemen lantzen, non geratzen da?”, dio hitzaurre horretan Agirrek.

hizpide



Cristina Uriartek hezkuntzako hainbat eragile bildu ditu Werten legeari aurre egiteko adostasuna bilatzeko

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren Proiektuaren (LOMCE) inguruan hezkuntzako hainbat eragile-
ren iritzia jasotzeko, bilera batera deitu zituen hainbat hezkuntza eragile Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek. Besteak beste, EHIGE, Ikastolen Elkartea, Kristau eskolak, Sarean, Euskadiko Eskola Kontseilua, BIHE edota Lanbide Heziketako Kontseilua izan ziren bilera horretan. Lehen aldiz elkartu dira eragileok guztiak Lakuan sailburuarekin LOMCEri buruz hitz egiteko.

LOMCEri aurre egin ahal izateko, estrategia eta erantzun bateratua lortzea zuen helburu Uriartek bilerara deitzean, baina legea indarrean jarri arte itxoiteko deia egin zuen, azken aldaketek zer nolako legea utziko duten ikusteke baitago. “Argi daukagu legea une honetan idatzia dagoen eran gure hezkuntza sistemaren aurka doan lege bat

dela, eta ahal dugun guztia egingo dugula ezarri ez dadin”, esan zuen Uriartek bilera-
ren ostean.

Alabaina, harago joatea eskatu zioten eragileek, legearen kontrako oposizioaren lidertza Jaurlaritzak har dezala eskatu zioten. Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko presidenteak bileraren ondoren adierazi zuen “euskal hezkuntza sistemaren estrategia partekatu bat” beharrezko dela: “argi dago kontsentsu zabala dagoela legea ez aplikatzeko, eta ez aplikatze hori ezin dira izan ikastolen, publikoen edo kristau eskolen estrategiak; estrategia bateratua izan behar du.”

Beste zenbait eragilek legearen aurrean desobedienciazko deia egin zuten. Mutur horretara iritsi aurretik, haatik, legearen aplikazioa saiheste aldera, “eskura dituen legezko tresna guztiak” erabiliko dituela jakinarazi zuen Hezkuntza sailburuak.

Hezkuntza komunitateari entzunger, LOMCE onartu du Espainiako Gobernuak

Hezkuntza komunitatearen gehiengoak azken hilabete luzeotan agertutako kritikak eta kalean egindako protestak ez ditu aintzat hartu Espainiako Gobernuak, eta PP ez beste alderdi politiko guztien babesik gabe onartu du LOMCE lege egitasmoa. Maiatzaren 17an eman zion oniritzia hezkuntzaren erreformari —aurreikusitakoa baino astebete geroago—, eta orain Kongresuan eztabaidatu behar dute. PPK gehiengo nagusia duenez, aurrera egingo duen zalantza gutxi dago. Gobernuaren asmoa da Kongresuaren baiezkoa udazkene-rako jasotzea, eta legea 2014/15 ikasturtean indarrean jartzea. Beraz, kontrakorik gertatu ezean, Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako ikastetxeetan ezarriko da.

Zirriborroak erakusten zuenez, zentralizaziora eta sistema homogeneizatzera jotzen du Jose Ignacio Wert Hezkuntza ministroaren lege egitasmoak. Ikasgaiak hiru multzotan banatzen ditu: enborrekoak (Madrilen esku daude, eta gutxienez ordu-tegiaren erdia beteko dute), espezifikokoak (Madrilen eta erkidegoen artean kudeatuko dituzte, eta gehienez ordu-tegiaren erdia hartuko dute) eta libreki zehaztuak (erkidegoen esku). Azken multzo horretan sartzen da euskara. Horrez gain, beste zenbait aldaketa txiki sartu ditu Wert ministroak. Esaterako, Katalunian gaztelaniaz ikasi nahi duten familiei Espainiako Gobernuak berak ordainduko dizkie eskola pribatuak, baina ondoren Generalitateari kenduko dio dirua, transferentzien bidez.

izan da

Hizkuntza gutxituei arnas pitin bat emango diete Frantziako Senatuak Eskola Legeari egin zuzenketek

Eskola Legea aztertzen ari dira Frantziako Estatuan. Parlamentutik igaro zen lehenik, eta ondoren Senatuak egin dizkio zuzenketak Legeari. Hizkuntza gutxituei zirrikitu bat ireki die Frantziako Senatuak Eskola Legeari egindako lehen zuzenketari esker. Senatuak onartu duen zuzenketaren bidez, lege egitasmoaren 27-bis artikulua moldatu du. Artikulu horrek hizkuntza gutxituei atek ixten zizkien, izan ere, horrekin, haurren gurasoek edo or-

dezkariek haurrak hizkuntza gutxituan ikasteari traba ezar ziezaioketen.

Zuzenketa horrekin batera, aldaketa bat ere onartu du Senatuak. Aldaketa horri esker, “eskualde hizkuntza” bigarren mailan baliatzea ahalbidetzen du. Eta, gainera, balio sinboliko handia zuen aipamen bat legetik kentzea ere lortu dute: Lege proposamenak “frantsesaren ezagutza hobetzea” jotzen zuen hizkuntza gutxi-tuak irakasteko helburu bakartzat, eta

orain kendu egiten dute aipamen hori, eta onartzen da ikasgai oro irakasteko baliagarria izan litekeela. Lege proposamenak eskola publiko elebidunari eragiten dio, baina, hala ere, gehenez oren parekotasuna atxiki beharko dute. Haatik, lege proposamenak ez dio murgiltze-ereduari aipamenik egiten, eta ez du ondorio baiko-rrik ekarriko ikastolentzat.

Jean Jacques Lasserre Lapurdiko senatari zentristak egindako zuzenketak atzera bota ditu Kultura, Hezkuntza eta Komunikaziorako Batzordeak. Falloux legea baztertzuz ikastolen egoitzak finantzatzeko bidea proposatu zuen Lasserrek.

Herri Urratsen 30. ekitaldia jendetsua gertatu da, baina ez du ikastolen egoera larriarekiko kezka ezabatzea lortu

30.000 lagun inguru elkartu ziren maiatzaren 12an, Senperen, Herri Urrats jaiaren 30. ekitaldian. Herritarren erantzun onak ez zuen lortu, hala ere, Ipar Euskal Herriko ikastolen egoera ekonomiko larriarekiko kezka estaltzea. Euskararen eta ikastolen etorkizuna bermatzeko erakunde publikoen babes ezinbestekoa dela adierazi zuen Paxkal Indo Seaskako presidentea harrera ekitaldian. Alde horretatik, euskararen aitortza ofiziala ahalbidetuko duen lege baten beharra nabarmendu zuen Indok ordezkari instituzionalen aurrean. Frantxua Maitia Akitaniako presidenteordea eta Euskararen Erakunde Publikoko presidentea, Marie Christine Aragon kontseilari nagusia, Christine Bessonart Senpereko auzapez

eta Auzapezen Biltzarreko presidentea, Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua, Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusia eta Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko zuzendaria izan ziren harre-ra ekitaldian, besteak beste.

Falloux legearen aitzakiaz Baionako suprefetak Hendaiako ikastola berria udalaren diruarekin egiteko jarritako trabak gogora ekarri zituen Indok, eta horrek hainbat Herriko Etxe eta Herri Elkargoren beldurra piztu duela gaineratu zuen. Halaber, Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohiaren jokaera salatu zuen, Seaskari hitz emandako 400.000 euroetatik bakar bat ere ez dutelako jaso. Egungo Hezkuntza sailburuak, Cristina Uriartek,

euskara bultzatzeko Jaurlaritza “Seaskaren ondoan” egongo dela ziurtatu zuen. Asmoak asmo, diru ekarpena egiteko eskatu zion Indok Jaurlaritzari.

Gipuzkoako Diputazioaren laguntza Xalbador ikastetxeari

Gipuzkoako Foru Aldundiak 600.000 euroko diru laguntza emango dio Seaskari, Kanboko (Lapurd) Xalbador ikastetxea eraberritzeko. Eskola eraberritzeko lanak oso aurreratu daude, eta datorren eskola sartzerako amaituta egotea espero da. Ikastetxeak 300 ikasle hartu ahal izango ditu aurrerantzean.

Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusiak diru laguntza emateko arrazoia azaldu zuen: “Auzolanean garatuko dugu euskara Euskal Herri osoan. Gure ekarpenak euskaldunok euskaraz ikasi eta mintzatzeko dugun eskubidea bermatzeko oinarri izan nahi du”. Diputazioaren laguntza eskertu zuen Paxkal Indok.

hizpide



Goiriaren tesiak etxean hezteak duen lege-aitorpen falta gainditzeko soluzioak proposatu ditu

Etxean hezea zer egoera juridikotan dagoen aztertu du Madalen Goiria doktoreak tesi batean, Espainiako Estatuko legeek arautzen ez duten errealitate bat baita hori. Gainera, deseskolatzearen arrazoiak ikertu ditu, eta irtenbide posible batzuk aurkeztu ditu seme-alabak etxean hezteko bidea hautatzen duten familiek zailtasunak gainditu ditzaten. Madalen Goiria *La opción de educar en casa* blogaren egilea da.

Tesiak agerian utzi du etengabe aldatzen ari den errealitatea dela etxean heztearena. "Orain arte ez zegoen azterketa enpirikorik, jakiteko zer familia-motak erabakitzen duten etxean hezea eta zergatik. Egin dudan lanean, aitzindari deitzen diedanak ezagutu ahal izan ditut. Gehienak atzeritarrak dira, baita kontsumismoaren aurkakoak ere; horregatik aukeritzen dute seme-alabak sistematik kanpo hezea. Gaur egun, ordea, familiek beste profil bat dute; aipatzekoak dira etxean hezea erabakitzen dutenak hezkuntza-sistemak haien beharrei erantzuten ez dielako, bai seme-alabek eskola-porrota edo bullying-a jasan dutelako, bai kultura-desberdintasuna dela medio egokitu ez direlako, esate baterako". Nolanahi ere, Goiriak uste du familiak egoera zailean daudela, aukera horren aitoren faltagatik. "Europako ordenamendu juridiko batzuetako araudiaren azterketatik etor litezke irtenbideak, haietan aukera hori onartuta baitago".

Doktoreak proposatzen duen aukeretako bat da Flexi schooling edo denbora partzialeko heziketa. Britainia Handian sortutako proposamen bat da, eta seme-alabak ikastetxera bidaltzen dituztenentzat nahiz etxean hezten dituztenentzat zuzendua dago. "Han, hezkuntza-sistemaren barnean, denbora partzalean eskolaratzeko aukera ematen dute ikastetxe batzuek, beste batzuek hartzaindegi-zerbitzua edo eskolaz kanpoko zenbait jarduera eskaintzen dituzten bezala", azaldu du Goiriak. Horrenbestez, ikasleek ikastetxean jasotzen dute heziketaren parte bat, gainerako ikaskideekin batera, eta etxean osatzen dute hura.

Guraso elkarteek datorren ikasturtean batxilergoko curriculumetik Erljioa kentzea nahi dute

EHIGE, BIHE eta SAREAN elkarteek laiktasunaren aldeko konpromisoa hartu dute, ez dute onartzen erlijioa irakasgai curricularra izatea eta alternatiba aurkeztu dute. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak EAEko Batxilergoko curriculum aldatu du eta datorren ikasturtean, erlijioa aukeratzeko ez duten ikasleak irakasgai alternatiboa egitera derrigorturik egongo dira, Espainiako Auzitegi Gorenaren sententzia bat beteaz. Orain artean, eskola publikoek eguneko ikastorduen amaieran pilatu ohi zituzten Erljiooko orduak, eta hautazkoa zenez, trukean beste irakasgai hartu beharrik ez zeukaten ikasleek. Aldaketa honekin, ordea, heldu den ikasturtean, erlijioa aukeratu ez dute ikasleek derrigorrezko izango dute ordeko irakasgai egitea.

Erljioa batxilergoko curriculumetik kentzea eskatzeaz gain, gurasoek salatu dute erlijio irakasleen sarbidea eta horiek erlijio emateaz gain beste irakasgai batzuk emateko aukera izatea. "Bidegabea iruditzen zaigu, ez baitute sarbide prozesu bera". Erljioaren alternatibaren ordez, gastua arlo hauetan lehenestea eskatuko dute: irakasleen ordezkapenetan, funtzionamendu-gastuetan, diru-laguntzetan...

izango da

Uztailaren 1ean hasiko dira Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak



Uztailaren 1etik 24ra egingo dira aurten UEU-ren ikastaroak. Hogei ikastaro egingo dituzte Eibarren, 11 Iruñean, bederatzita Baionan eta bat Gernika-Lumon. Matrikulazio-epea zabalik dago, eta ikastaro bakoitzari hasi aurreko astean itxiko da (aurrez plaza kopurua bete ezean).

Arteari eta musikari loturiko hiru ikastaro egingo dituzte: *Eskuekin pentsatuz, emozioak irudikatzen; Ahots-tekника ikastaroa: kantatua sentitu, jolastu, gozatu*, eta, *Euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena*. Gizarte zientzietan 18 ikastaro eskainiko dituzte, bestak beste, *Euskara eta kirola: euskara sustatzeko eredu eta baliabideak; Irakats- eta ikaste-prozesuak aberasteko abolku erraz eta egingarriak; Eskola komunitatean eta komunitate eskolan: XXI. mendeko erronkak; Irakaskuntzarako antzerki-teknikak: landu sormena, komunikazioa eta talde-estrategiak; Guraso/ beztizgailu eta haurren elkar ulertzea: zigorrak, xantaiak eta mehatxurik gabeko harremanak*, edota *Hezkuntza-sistema alternatiboak, gizarte aldaketarako tresna eta gako*. UEUren webgunean da-

go informazio osoa eta matrikulazioa egiteko aukera: <http://www.ueu.org/ikasi/udako-ikastaroak>.

EHUK 114 jarduera antolatu ditu aurtengo Udako ikastaroen barruan. Jarduera horien artean artean 72 ikastaro, hamalau kongresu, sei eskola, hamabi tailer eta profesionalen bederatzita jardunaldi izango dira. EHUren udako ikastaroen artean, hezkuntza gaietara loturikoak eta euskarazkoak honako ikastaro hauek egin ahal izango dira: *Euskal curriculumaren garapena: asmoetatik errealitatera; Hizkuntzen irakaskuntza eta gaitasun digitala; AGA duten ume eta nerabeentzako eskubartze psiko-beztizgailuak; Idazketa sortzaile gelan, nitikgura eta Hizkuntzen irakaskuntza eta gaitasun digitala*. Honako bilera hau ere egingo da: *Elebitasuna eta beztizgailu kontaktua Euskal Herrian eta beste Erkidego batzuetan*. Informazio guztia eta izena emateko aukera honako webgune honetan dago: <http://udaikastaroak2.i2basque.es/index.php/en/>.

Herritarren parte hartzeaz jardunaldiak egingo ditu Gipuzkoako Diputazioak

Herritarren parte-hartzearen inguruan egindakoa ezagutzera eman, aztertu, bertatik ikasi eta balioan jartzeko, 'Herritarrekin topaketak' izeneko jardunaldiak egingo ditu Gipuzkoako Diputazioak, Donostiako Kursoalen, ekainaren 7an eta 8an. Islandiako Konstituzioaz ariko dira parlamentari bat eta herritar bat, eta ondoren, Marta Harneckerrek hitz egingo du.

hik hasi-ren topaketetako zazpi ikastarotan izena eman daiteke oraindik

Izena emateko epea amaitu den arren, hainbat ikastarotan lekua dago oraindik: **Etterako lanak gure eskolan; Besteak sendatzeko ahalmena; Eskolako bizipenak, hizkuntza-ideologia eta jarrearen eraldatzaile; Coaching; "Kamishibai" tailerra; Espresio tailerra: sortuz sentitu, sentituz sortu; eta Ahotsaren erabilera egokia.** www.hikhasi.com web orrian eman behar da izena.

GAIA

0-3 ziklorako formazioa

Pikler eta Malaguzziren teoria pedagogikoetan oinarrituriko prestakuntza antolatu du hik hasi-k



Haur txikiekin lan egiten duten hezitzaileen formazioan lagundu nahi du hik hasi-k antolatutako bi urteko ikastaro trinkoak.



***hik hasi* egitasmo pedagogikoak sorreratik erakutsi du euskarazko formakuntzaren alorrean laguntzeko konpromisoa. Urtero antolatzen dituen Udako Topaketak —uztailaren 3tik 5era izango dira aurretik— eta udazkeneko jardunaldi monografikoak dira horren lekuko. Bide horretan, beste urrats bat emango du datorren ikasturtean, Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) irakasleei eta hezitzaileei eskainitako bi urteko prestakuntzarekin.**

Alor horretako profesionalen artean formaziorako dagoen “nahia eta beharra” asebeste nahi ditu *hik hasi*-k ekimen berriarekin. Horretarako, haur hezkuntzan erreferente diren Emmi Pikler eta Loris Malaguzziren teoria pedagogikoen gainean ardazturiko formazio-egitaraua osatu du. Ikastaroan izena emateko epea zabalik dago ekainaren 21a bitartean.

G

Duela 18 urte sortu zenetik, *hik hasi*-k euskarazko prestakuntzaren alorrean antolatutuen jardunaldi eta ikastaroek Haur Hezkuntzako irakasle eta hezitzaileen harrera oso ona jaso dute, baina azken urteotan, 0-3 zikloan jarduten dutenek formazioa jasotzeko interes berezia erakutsi dute. Horren adibide da haurraren autonomia, haur eskoletako kalitateaz, haur txikien mugimenduaren behaketaz edota espazioen antolatetaz egindako jardunaldi monografikoek izan duten erantzun beroa.

Etaparen horrek nortasunaren eraikitzen eta haurraren garapenean eta autonomian daukan garrantzia ikusirik, eta 0-3ko irakasle eta hezitzaileek formaziorako “nahia eta beharra” dutela ondorioztatu ondoren, *hik hasi*-k bi urteko prestakuntza trinkoa antolatzea erabaki du (200 ordutik gorakoa). 2013ko irailean hasiko da ikastaroa, eta 2015eko uztailean amaituko da lehen promozioa. Ikasle kopurua mugatua izango da: 40 ikasle, promozio bakoitzeko. Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 21a bitartean, *hik hasi*-ren web atarian (www.hikhasi.com).

Ikastaroaren ezaugarri nagusietako bat bi joera pedagogikoren inguruan egituratuta dagoela da. Lehen ikasturtean, Emmi Piklerren ekarpen pedagogikoen inguruko formazioa jasoko dute ikasleek; eta bigarrenean, Loris Malaguzziren ekarpenak ezagutuko dituzte. Juanjo Quintela psikologoak eta Alfredo Hoyuelos Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta Iruñeko Udal Haur Eskoletako zuzendaritzako kideak koordinatu dute ikasturte bakoitza, hurrenez hurren. Horrez gain, bi ikasturteetan zehar, formazio pertsonala jasoko dute ikasleek. Kasu horretan, Alvaro Beñaran *Luzaro* psikomotritzitate eskolako irakasle eta pedagogo terapeuta izango da emaila eta koordinatzailea.

Quintelaren iritziz, “haur txikien hezitzaileen nortasun profesionala eraikitze bidean lan handia dago egiteko oraindik, eta horretarako beharrezkoa da gure herrian pisu nabarmena duten joera pedagogiko aurrerakoien alderdi positiboak bil-

tzea, bakoitzak duen ahalmenez baliatzea eta, koherentziarik galdu gabe, denok aberrastean gaituen ikuspegi zabalago bat osatzea”. Iritzi hori berresteko, Eszter Moses Lóczy institutuko kideak, 2010ean Bilbon emandako hitzaldi batean esandakoa gogoratu ekarri du Quintelak: “[Piklerren] Sistema hau haurren lehen bi urteetarako pentsatuta dago... Oso sistema argia da, oso landua, eta emaitzak ematen ditu... Bi, hiru edo lau urteko haurrekin lan egiterakoan beste ideia eta jarduerak batzuk gehitu behar dira”.

Formazio teorikoa, praktikoa eta pertsonala eskainiko ditu ikastaroak, eta partehartzaileek ikastaroan jasotakoa egunerok lanean praktikan jartzeko, esperimendatzeko eta bizitzeko aukera izango dute. Saio gehienak zortzi ordukoak izango dira, eta hilean behin egingo dira, ostiral arratsaldeetan eta larunbat goizetan, Donostiako Ekintza ikastolan.

Bi urteko formazioan Piklerren eta Malaguzziren marko teorikoen berri izan eta praktikan jarri ostean, ikasle bakoitzak bere sintesia osatzea nahi lukete antolatzaileek. “Formazio eskaintza honek bere baitan hartzen dituen eskolek oinarrian dute haurraren onarpena, epairik gabeko entzuketeta eta hezitzailea haurraren ibilbidean bidalgun izatea. Haurraren kontzepzio berdintsua dute: haurrak gaitasun batzuk ditu hasieratik eta haiek garatzen utzi behar zaio”, dio Josi Oiarbide *hik hasi*-ko kideak. Hortik abiatuta eskola bakoitzak “ekarpen aberatsak” egiten dituzte, haiek ezagutzeko aukera eman nahi diete Haur Hezkuntzako hezitzaileei, ondoren bakoitzak bere ondorioak atera ditzan.

Ikastaroan joera pedagogiko ezberdinak batzeko antolatzaileek egindako ahalegina nabarmendu du Beñaranek. “Hezitzaile bezala, interesgarria da Pikler eta Malaguzziren ekarpenak jasotzea, eta gero norberak bere ikastetxean bere bidea aurkitzea, ildo bakarreko eskolak sortu beharrean”. Izan ere, Beñaranen iritziz, “ez dago egia bakar bat, eta ezadostasunak izatea ona da. Guk ere baditugu gure artean, eta ikastaroko formazioa jasotzen dutenek ikusi behar-

Haur Hezkuntza

ko dute ez gaudela ados gauza guztietan, posible dela marko baten barruan beste iritzi bat izatea, eta norberak dakienetik abiatuta ñabardurak eta ekarpenak egin daitezkeela, ikastetxearen edota herriaren ezaugarrien arabera”.

Maila handiko irakasle taldea bildu dute formazioko koordinatzaileek, hala Euskal Herrikoak (aipatutakoez gain, Ana Araujo, Ezosi Arizaga, Xabier Tapia, Ana Gerendiain...) nola nazioartekoak (Myrtha Chokler, Budapesteko Pikler-Lóczy institutuko hezitzaileak, Reggio Emiliako eskoletako pedagogo eta irakasleak...).

Lehen ikasturtea: Emmi Piklerren inguruko formazioa

Emmi Piklerrek (Viena, 1902-Budapest, 1984) 1946an sortu zuen Lóczy institutua, Budapestean, baina haren ekarpenak duela urte gutxi hasi ziren ezagutzen Euskal Herrian. 2009an joan zen lehen aldiz euskal herritar talde bat Lóczy institutura ikastaro bat egitera. Talde horretan zen Juanjo Quintela psikologoa. Berak koordinatu du formazio ikastaroaren lehen ikasturtea.

Bi dira Piklerren proposamen pedagogikoaren ardatzak: jarduera autonomoa eta mugimendu askea batetik, eta zainketak bestetik. Bi ardatz horiek osatzen dute ikastaroaren bizkarrezurra, baina gai horietan sartu aurretik, ikastaroari hasiera emateko, erreferentziazko marko bat ezartzea beharrezkoa ikusi du Quintelak. Horretaz arduratuko dira Xabier Tapia psikologoa eta Ezosi Arizaga psikoterapeuta, lehen asteburuan, irailean. Humanizazio prozesuaz eta atxikimenduaz hitz egingo dute bi adituek. “Piklerren proposamenetik eta beste edozein proposamen pedagogikotik harago dauden kontzeptuak dira, baina eragin zuzena dute Piklerren proposamenean. Izan ere, Piklerren teoria ez dago isolaturik, askoz zabalagoa den paradigma pedagogiko baten barruan baizik”, azaldu du Quintelak.

Urrian Myrtha Chokler psikomotrizis-



Juanjo Quintela eta Alvaro Beñaran.

ta argentinarrak hartuko du parte jardunaldian, eta familiaren eta eskolaren arteko harremanaz hitz egingo du. Asteburu berean, Antzuolako Eskolako ordezkariak lehen eskolaratzeari buruzko hitzaldia emango dute, eta zehazki, harrera eta egokitzapenaren gaia aztertuko dute.

Piklerren ekarpen zehatzetara gerturatzeko lehen saioa abenduan izango da. *Barnekoan oinarritutako pedagogiak, eta kanpoan oinarritutakoak* izeneko saioan Piklerren “aurkikuntza nagusia” aztertuko dute: mugimendu askea eta motrizitate globala. “Piklerren pedagogia gizakiaren barnekoan oinarritzen da, bereziki 0-2 urteetan”, azaldu du Quintelak. Berak gidatuko du asteburu horretako saio nagusia, eta haren osagarri, Alvaro Beñaranek 2-3 urtekoen mugimendua eta helduaren jarrerak aztertuko ditu.

Lóczy institutuko eguneroko jardueraren beste ardatz nagusia zainketak dira, eta estu lotzen dira ezaugarri jakin batzuekin: errespetuarekin, egonkortasunarekin edota helduaren eta hauraren arteko harremanarekin. “Abiapuntua honako hau da: haur txikiak oso gogorra egiten zaie taldean bizitzea, ez daude prestatuak beste zazpi edo hamar haurrekin elkarbizitzeko. Umeak behar duena da familia-giro bat, eta heldu



gutxi batzuekin harreman egonkorra izatea”. Zainketek haurarentzat duten garrantziaz, zainketen antolaketaz eta jardueraren autonomoaz ikuspegi orokor bat jasoko dute ikasleek, eta hortik abiatu hiru zainketa mota nagusietan murgilduko dira: loa, higiena eta elikadura. Umeari janaria emateko momentua da “zailena”, Quintelaren iritziz; “une hori antolatzeke moduak emango digu haur eskolaren eguneroko bizitza-kalitatearen berri. Piklerren proposamenean oso ondo pentsatuta eta landuta dago gai hori”.

Ikasturteko azken saioetan hainbat gai aztertuko dituzte: ikasketa, hizkuntzaren bereganatzea, beste haurerikiko harremanaren aurkikuntza, eguneroko elkarbizitzan sortzen diren gatazkak kudeatzeko eta gutxitzeko moduak... Halaber, Waldorf pedagogiak eta Piklerrenak elkarren artean dituzten loturak aztertuko dituzte asteburu batean. “Waldorf pedagogiak ez du Piklerren edota Malaguzzen pisu espezifiko berea, baina oso erreferente interesgarria da 0-3 heziketan”, adierazi du Quintelak.

Saio guztiak teoriko-praktikoak izango dira, izan ere, Piklerren proposamena “ez da teoria huts bat, egiteko modu bat baizik; behar zehatz bati erantzuteko premiatik sortu zen, bigarren Mundu Gerraren oste-

0-3 urte bitarteko hezitzaileentzako 2 ikasturteko prestakuntza

2013-14 IKASTURTEA: EMMI PIKLERREN INGURUKO FORMAZIOA ETA FORMAZIO PERTSONALA.

Koordinatzaileak: Juanjo Quintela, Alvaro Beñaran

- Erreferentziazko markoa. *Humanizazio prozesua. Gizakiaren oinarritzko unitate psikosomatikoa* (Xabier Tapia); *Atxikimendua, giza garapeneren euskarri-eratzaillea* (Ezoz Arizaga).

Aurkezpena eta formazio teoriko-praktikoa. 2013ko irailak 20-21 (8 ordu)

- *Familia eta eskola* (Myrtha Chokler); *Eskolaren barrera familiei* (Antzuolako Eskola). Formazio teoriko-praktikoa. Urriak 18-19 (8 ordu)

- *Errespetua, samurtasuna, entzuketeta, begirada... bizji beharreko kontzeptuak* (Alvaro Beñaran).

Formazio pertsonala. 2013ko azaroak 15-16-17 (17 ordu)

- *Barnekoan oinarritutako pedagogiak, eta kanpoan oinarritutakoak* (Juanjo Quintela); *2-3 urtekoen mugimendua eta helduaren jarrerak* (Alvaro Beñaran) Formazio teoriko-praktikoa. 2013ko abenduak 13-14 (8 ordu)

- *Arreta pertsonalaren jarduerak: zainketak. Lo.* (Juanjo Quintela) Formazio teoriko-praktikoa.

2014ko urtarrilak 10-11 (8 ordu)

- *Errespetua, samurtasuna, entzuketeta, begirada... bizji beharreko kontzeptuak* (Alvaro Beñaran).

Formazio pertsonala. 2014ko otsailak 7-8-9 (17 ordu)

- *Zainketak: elikadura* (Susana Martinez, Juanjo Quintela). Formazio teoriko-praktikoa. 2014ko martxoak 14-15 (8 ordu)

- *Zainketak: higiena* (Alfredo Hoyuelos, Txusma Azkona). Formazio teoriko-praktikoa. 2014ko apirilak 11-12 (8 ordu)

- *Waldorf pedagogiaren eta Piklerren pedagogiaren arteko loturak*. Formazio teoriko-praktikoa. 2014ko maiatzak 16-17 (8 ordu)

- *Ikasketak, bizkuntza, gatazkak eta barremanak*. (Pikler-Lóczy Sareko adituak). Formazio teoriko-praktikoa. 2014ko uztaialak 2-3-4 (17 ordu)

2014-15 IKASTURTEA: LORIS MALAGUZZI-REN INGURUKO FORMAZIOA ETA FORMAZIO PERTSONALA.

Koordinatzaileak: Alfredo Hoyuelos, Alvaro Beñaran

- *Hezkuntza umearen irudiarekin basten da, gizakiaren zehaztugabetasuna islatzen duen umearen irudiarekin*. Hasiera eta formazio teoriko-praktikoa. 2014ko irailak 13-14 (8 ordu)

- *Hezteak posible diren aukeren kopurua handitzea esan nahi du*. Formazio teoriko-praktikoa.

2014ko urriak 17-18 (8 ordu)

- *Reggio Emiliako esperientziaren inguruko jardunaldiak*. Formazio teoriko-praktikoa eta topaketak. 2014ko azaroak 14-15. (12,5 ordu)

- *Haurra eskubide historikoak eta kulturalak dituen subjektua da*. Formazio teoriko-praktikoa.

2014ko abenduak 12-13 (8 ordu)

- *Eskola esparru estetiko bizigarria da*. Formazio teoriko-praktikoa. 2015eko urtarrilak 23-24 (8 ordu)

- *Pedagogia eraikitzea ezohikoaren edertasuna amestea da*. Formazio teoriko-praktikoa. 2015eko otsailaren 13-14 (8 ordu)

- *Haur eskoletara bisitak*. Formazio praktikoa. 2015eko martxoak, apirila eta maiatzak

- *Formazio pertsonala*. 2015eko martxoak 13-14-15 (17 ordu)

- *Eskola eta hezkuntza gizarte aldaketarako oinarritzko alderdiak dira*. Formazio teoriko-praktikoa. 2015eko apirilak 17-18 (8 ordu)

- *Formazio pertsonala*. 2015eko maiatzak 15-16-17 (8 ordu)

- *Hazteak sedukzio estetikoaren narrazio gaitasuna garatzea esan nahi du*. Formazio teoriko-praktikoa. 2015eko ekainak 12-13 (8 ordu)

- *Hik Hasi Udako Topaketak: Euskal Herriko Haur Eskolen praktika bideratuz... Pikler eta Malaguzziren teoria pedagogikoen arteko sintesia posible al da?* Formazio teoriko-praktikoa. 2015eko uztaialak 1-2-3.

Haur Hezkuntza

an: sehaska-etxe batean bizi ziren haurrek euren familiekin bizi zirenen antzeko bizimodua izan zezaten”. Umearen eguneroko bizitzaren xehetasun guztien azterketan oinarrituta dago Piklerren pedagogia, eta hortaz, bideoen azterketa osagai garrantzitsua izango da formazio ikastaroan.

Bigarren ikasturtea: Loris Malaguzziren inguruko formazioa

Alfredo Hoyuelos Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak koordinatu du bigarren ikasturtea, Loris Malaguzziren pentsamendu eta lan pedagogikoari buruzkoa. Pedagogo italiarraren lan teoriko eta praktikoa aditua da Hoyuelos, hari buruzko doktore-tesia aurkeztu baitzuen 2001. urtean. 60ko hamarkadan Reggio Emiliako 0-6 urte bitarteko udal haur eskoletan abiatutako hezkuntza proiektu berritzailearen eragile izan zen Malaguzzi (1920-1994). Bigarren Mundu Gerran ezagututako izugarrikerien ostean, haurrak hezteko beste modu bat beharrezkoa zela ikusi zuten Malaguzzik eta Reggio Emiliako gurasoek. Hezkuntza-eredu berri horrek haurrei entzun, haurrak errespetatu eta haien ahalmenak kontuan hartzen zituen, eta haurrek testuinguru duinetan, zorrotzetan eta ahalmen horiekin bat datozenetan hezteko duten eskubidea bermatzen zuen, helduok eskubide horri inoiz bizkarrik eman gabe.

Hezkuntzaren arloan konplexutasunaren paradigma garatu zuen Malaguzzik, Hoyulosek nabarmendu duenez, alegia, sinplifikazioa (ume guztiak multzo berean sartzeko joera) baztertu eta ume bakoitza entzun, behatu, dokumentatu eta ikertu beharra dagoela aldarrikatu zuen. Hori dela eta, *Hezkuntza umearen irudiarekin hasten da, gizakiaren zehaztugabetasuna islatzen duen umearen irudiarekin* izenburua jarri dio ikastaroari hasiera emateko saioari. “Esan nahi du linealtasunik ez dagoela, umearen irudia ez dagoela aurrez zehaztuta. Umea beti da ezezagun bat; hura behatzen, ikertzen, sakon-

tzen eta dokumentazioaren bidez interpretatzen lortuko dugu umearen irudia ezagutzeta”, azaldu du Hoyulosek.

Printzipio hori aurrera eramateko bideak proposatu zituen Malaguzzik: umearen entzuketan oinarritutako pedagogia (umeak nola eta zertan oinarriturik entzun behar ditugun); behaketa, ikerketa-ekintza zunden bidez; proiektuaren ideia, programazioaren ideiarekin aurrean (umea ikertzeko eta haren kultura ezagutzeko eta ezagutarazteko proiektu bat osatu, curriculumeko egitarauaren orde).

Bestetik, Malaguzziren iritiz, “hezteak posible diren aukeren kopurua handitzea esan nahi du”. Horretarako, eskolek antolamendu egoki eta zehatz bat behar zutela uste zuen. Besteak beste, proposatu zuen hezitzaileek binaka lan egitea eta talde txikietan antolatzea (lauzpabost lagunekoa, umeak hobeto entzuteko eta ikertzeko), eta atelierista edo arte adituaren figura sortu zuen. Halaber, helduek bestelako rol bat jokatu behar zutela iritzi zion: “Malaguzziren ustez, helduek afektibitatea eskaini behar diote umeari, umearen alboan egon, eta rol politikoa jokatu: gizarte eraldatu behar dute helduek, umeen eskubideak bermatzeko eta garatzeko”. Halaber, irakasleek ez ezik, eskola komunitatea osatzen duten gainerako helduek ere (sukaldariak edota garbitzaileak, kasu) proiektuan garrantzia handia dutela zioen Malaguzzik, “beste ahots batzuk” ekartzen dituztelako. Antolakuntzari dago-kionez Malaguzziren beste ekarpen garrantzitsua arduren banaketa pertsonalizatua da, “ez dago zuzendaririk eskoletan, denok hartu behar dugu ardura”.

Haurra eskubide historikoak eta kulturak dituen subjektua da, izenburu hori du Hoyulosek prestatu duen ikastaroko saio batek. NUPeko irakaslearen iritiz, “Eskolaren eta Haur Hezkuntzaren identitatea garatzea oso garrantzitsua da, bi arriskuri aurre egiteko: asistentzialtasunari batetik, eta akademizismoari edo instruktibismoari, bestetik.

Garrantzitsua da ulertzea umeak ez dira hizkuntza diziplinatutakoak, baizik eta adierazpideen arteko harremanak lantzen dituztela”.

Malaguzziren ekarpenak hiru arlotan bereizten ditu Hoyulosek. Orain arte aipatutakoak etikaren alorrekoak dira, baina ekarpen estetikoak eta politikoak ere egin zituen. Hain zuzen, eskola “esparru estetiko bizigarria” dela uste zuen pedagogo italiarrak. Haren ikuspegitik, umearen ikaskuntza eta garapena plazerarekin lotzen da. “Espazioaren eta giroaren kalitatea zaintzeari oso garrantzitsua zeritzon Malaguzzik, egunerokotasun aberatsa osatze aldera: materialak, argitasuna, koloreak...”. Eskola guztiek tailer edo laborategi bat izan behar zutela zioen, umea hobeto dokumentatzeko, narratzeko eta beste ikuspuntu batetik ezagutarazteko. “Pedagogia eraikitzea ezohikoaren edertasuna amestea da”, zioen Malaguzzik.

Azkenik, haren iritiz, pedagogia beti politika da. “Politikak eta gizarteak kultura eta gizarte izaerako harreman bat ezartzen dute. Hortaz, oso garrantzitsua da pentsatzea hezitzaileen eginkizuna ez dela eskolaren barrukoa soilik, kanporako ere badela, helduen eta haurren eskubideak defendatzeko”, dio Hoyulosek. Eskola gizartera zabalik egotea proposatzen zuen Malaguzzik, eta eskolaren eta familiaren arteko eguneroko harremana estutzea, emozioak elkarrekin sortzeko. Malaguzziren ustez, eskolako ateak zabalik egon behar dira beti, gurasoak “sukalderaino” sartzeko. “Sukalderan partaidetza sukaldatzen dela esaten zuen”.

Bestetik, konfrontazioa maite zuen Malaguzzik, ideiak aurrez aurre jartzea. “Errealitatea ikuspuntu ezberdinetatik ikustea eta elkarriketa sortzea maite zuen... Bikote hezitzailean ere nahiago zuen ezadostasunak egotea adostasunak baino, umea etiketa baten pean ez sailkatzeko”.

Euskal Herrian badira Reggio Emiliako haur eskolen eredu oinarriturik, “baina haren kopia hutsa izan gabe”, lanean ari diren hainbat ikastetxe: Iruñeko udal haur eskola batzuk, Berriozarko haur eskolak, Atarrabiako haur eskola, Jauntsaratseko Oihanzabal eskola... Proiektu horietan ari diren hezitzaileetako batzuek irakasle gisa hartuko dute parte ikastaroan, besteak beste Ana Araujo Iruñeko Egunsenti haur eskolako irakasleak, Kristina Goñi Baztango haur eskolako zuzendariak, eta Ana Gerendiain Berriozarko haur eskolako zuzendariak.

Formazio pertsonala

Alvaro Beñaran pedagogo terapeuta eta Luzaro psikomotritzitate eskolako irakaslea arduratu da bi urteko ikastaroan formazio pertsonalari eskainitako atala koordinatzeaz. Ikasturte bakoitzean formazio pertsonalari eskainitako bi saio egingo dira, bakoitza zortzi ordukoa. “Formazio pertsonalean inportanteena prozesua bizitzea da, pertsonarengan mugimendu bat eragitea, eta ate batzuk irekitzea”. Ikastaroko formazioa 0-3ko haur heziketako profesionalentzat pentsatuta dagoela zehaztu du Beñaranek, “ez da terapia lana, ezta hazkuntza pertsonalerako formazioa ere”.

0-3 haur hezkuntzan formazio pertsonalak duen garrantzia azaltzeko hainbat arrazoi aipatu ditu Beñaranek. “Haur txikia, hezitzailearen funtzioa, eta bien arteko harremana ulertzea oinarritzak dira profesionalaren prestakuntzan; haur txikiarekin lanean ari garenean, gure historia propioetik oso gertu gaude, bizitzaren lehenengo esperientzien arrastoa hortxe dago”. Formazio pertsonalaren bidez, “haurrarendik eta gu izandako haurrarendik gertuago egoten saiatzen gara”, eta horrez gain, badira kognitiboki bakarrik ikasi ezin diren gauzak, “bizi egin behar dira, gugan integratu eta horietaz jabetu”.

Formazio pertsonalak helburu orokor



Alfredo Hoyuelosek koordinatu du Loris Malaguzziri buruzko formazio ikastaroa.

batzuk ditu, Beñaranek gogorarazi duenez. Batetik, “nire buruari gehiago entzutea, umeari hobeto entzuteko”; bestetik, “harremanetan heztea, hobeto bereizteko zer den haurrena eta zer den nirea”; 0-3 urteko umeak behar duen “nahiko ona den beste”-ren jarrerak garatzea da beste helburu bat; umearen bizipenetara hurbildu eta kognitiboki ikasi ezin dena bizipenen bidez bereganatzea; elkarrizketa toniko-emozionalean murgiltzea; jolasteko gaitasunari eustea; eta atxikimendua eta banaketaren aurrean hezitzaileak dituen bizipenez ohartzea ere formazio pertsonalaren xedetako batzuk dira.

Haur txikiekin lan egitean profesionalak burua sendo eta ondo sustraituta edukitzea oso garrantzitsua dela nabarmendu du Beñaranek. “Bestela, gerta liteke haurrek hezitzailea emozionaliki jatea, edo hark hesi gehiegi jartzea, beldurrez. Bi arrisku horiek daude: gehiegi nahastea, edo gehiegi urruntzea. Tarteko bat bilatzea da formazio pertsonalaren helburua: haurrekiko harremanean emozioei beldurrik ez izatea, baina aldi berean babestuta sentitzea”.

Hezitzaileen formazio pertsonalagurean gehiegi landu ez den eremua bada

ere, ikastaroen eskaintza asko zabaldu da azken aldirian, eta horrek izan ditzakeen ondorioez gogoeta egiten du Beñaranek. “Dakienak ez dakienari zerbait erakusten dion prozesu bezala uler daiteke formazioa, eta neurri batean hala gertatzen da, horretan datza formazioa. Baina horrek badu arrisku bat: jendeak pentsatzea formazio hori jaso gabe ez dakielako ezer egiten, formazio ikastaro horietan esango diotela zer egin behar duen, egia borobilak, perfektuak irakatsiko dizkiotela”. Horrek berehalako efektu bat izaten du ikastaroa jasotzen ari denarengan, “hasieran, paralizatu egiten da, irakatsi diotena ondo egin nahi duelako, esan dioten moduan. Teknikaren menpe jartzen da eta ez da ausartzen gauzak modu askeagoan egitera”.

Beñaranen iritziz, formazioa beharrezkoa da, baina norberak dituen berezko gaitasunak ez dira gutxietsi behar. “Denak ez du balio hezkuntzan, ezin da edozein gauza egin, baina ez dago egia osorik. Hezitzaileak ere gaitasun batzuk ditu, eta ekarpenak egin ditzake. Gauza batzuk ondo egingo ditu, segurua, eta beste batzuk gaizki, denok bezala. Baina ez du zertan bere espontaneitatea galdu formazioarekin”.

gurutze ezkurdia



ELKARRIZKETA

Leioako Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendaria

“Lortu dugu ikasketak euskaraz egitea, baina ez dugu errealitate berria euskaraz eraikitzen, erdaraz baizik”

Mendeurrena ospatzen ari da Bilboko Irakasleen Eskola. Bertako zuzendaria da Gurutze Ezkurdia Arteaga 2010. urteaz geroztik, baina guztira 30 urte inguru egin ditu ikastegi horretan lanean. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko kidea da Ezkurdia, Historian lizentziaduna eta Pedagogian doktorea. Araka ikertaldearen kide da eta bertan, curriculuma eta identitatearen arteko loturetan ikerlari aritu da. Halaber, testuliburuak aztertu ditu, euskal lurraldearekin, historiarekin eta kulturarekin lotutako edukien ikuspegitik. Karmele Perez Urraza eta Begoña Bilbao izan ditu bidelagun lan horietako askotan.

Euskararen erabilera eta kulturaren transmisioa dira, Ezkurdiaren iritziz, hezkuntzak etorkizunari begira dituen erronka nagusiak. "Hemengo gatazkarik handiena ez da politikoa, kulturala baizik. Euskal Herriak ez du izan botererik 500 urtean, baina mantendu du bere kultura. Noiz egon da kinka larrian euskal kultura? Orainxe bertan".



Bilboko Maistren Goi Eskolaren mendeurrena ospatzen ari zarete. Atzera begira, eta labur-labur esanda, zertan aldatu da eskola eta irakasleen formazioa ehun urte hauetan?

1912an estreinatu zuten Juliana Agirrezabalaga zuzendari zela Solokoetxeko eraikina, diputazioak maistren formakuntzarako espreski egin zuen orduan lehendabizikoz eraikuntza. Baina lehenago ere baziren maistren formaziorako ikasketak, 1902tik. Eta are lehenagotik ere magisterio ikasketak baziren Bizkaian, 2015ean 150 urte beteko dira, maisuen eskola sortu zenetik. Hura erdi profesionala zen, eta XX. mende hasieran ez zeukan arrakasta handirik. Ondorioz, eskola berrantolatu zuten eta maistren formakuntzara bideratu zuten. Orain, mendeurrenarekin kointziditu du Bilboko Irakasleen Eskolak eraikin berria duela, hemen Leioan.

Gorabehera handiak izan dira XX. mendean maisu eta maistren formazioan: une historiko zehatzetan goi mailako formazioa egon denean, oso emaitzak oparoak izan dira. Gero etorri dira kontrako bideak. Hemen, ohituta gaude olatuak bezala gora eta behera ibiltzen itsaso handian; igo ginen LOGSEren garaian, loraldi bat egon zen orduan, lege nahikoa aurrerakoia delako, ez beharbada Euskal Herriak begiratuta, baina bidea eman digu hainbat gauza egin ahal izateko. Orain olatuan behera egingo dugu: LOMCE dator eta atzera egingo dugu berriro. Eskola honen historia lotuta dago Espainiako hezkuntzaren historiarekin.

Historikoki, zeintzuk izan dira maistren goi mailako eskolaren mugarriak?

Mendeurrena ospatzeko egin ditugun ekintzen artean Emakume Abertzaleen Batzari buruzko erakusketa bat eta liburu bat egin ditugu. Aurreko urtean 90 urte izan dira EAB sortu zela, eta horrekin batera, gure goi mailako formakuntza honen mendeurrena dago, eta gurutzatu egin ditugu bi historiak, ikusteko ze harreman dagoen, eta gurutzaketa horretan hainbat aitzindari maistrak direla ikusi dugu. 1921-22 urteetan antolatzen da EAB, eta lehen taldean % 90 maistrak dira. Maria Jesus Ibazeta, Martina Casianoren izenak aipa litezke, besteak beste; talde inportantea zegoen. 1918an Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko kongresua egin zen, eta hemengo maistra Adelina Mendez de la Torrek hartu zuen parte ponentzia batekin. Honen ondorioz sortu zen lehen ikastola batzaren kontzeptua. Gero ordea, Primo de Riveraren etena izan zen, eta ondoren, Errepublikaren garaiko 6 urteak oso emankorrak izan ziren euskal irakaskuntzarentzat. Errepublikaren garaian erabaki zen berriro ere maistren formakuntza goi mailakoa izan behar dela, eta hiru urtekoa izatetik lau urtekoa izatera pasa zen 1932an. Lehen promozioa 1936an irten zen, baina horren daturik ez dago, gerra sartu baitzen.

Francorekin beherakada handia etorri zen ondoren, nazionalkatolizismoak beste irakaskuntza eredu batzuk markatu zituen, eta mugimenduaren printzipioak errespetatuko zirela zin egin beharra zuten maistrek. Batzuek zin egin zuten ezinbestean, beste batzuek nahi zutelako, suposatzen dut, eta este batzuek uko egin zuten. EABko maistra asko espurgatuak izan ziren.

Francoren garaian, 1963an, Deustuko eraikina egin zuten beren-beregi maistren formakuntzarako, eta asko hobetu zen maistren formazioa. Baina benetako aldaketa 80an gertatu zen, EHU sartu ginenean. Unibertsitateko kide bihurtu ginen, eta diplomatura moduan egon gara orain hiru urtera arte. Bolonia planarekin lau urtera pasatu gara, eta horrek maisu-maistren lanari garrantzia eman dio,

gurutze ezkurdia



“ **Diplomaturatik goi mailako titulaziora aldatzeak garrantzia eman dio maisu eta maistren lanari, duindu egin du** ”

“ **Gizonezkoak behar ditugu, maisu gutxi dago, hain zuzen ere, maisu izatea ez delako gizartean arrakastatsua, ez du prestigiorik** ”

duindu egin du, nolabait esateko.

Irakaslearen figurak gizartean zituen aitortza eta errekonozimendua, zertan dira gaur egun? Irakasleak sinisten du bere lanaren garrantzian?

Uste dut asko galdu dela, baina aitortza hori beharrezkoa du irakasleak, eta batez ere guk formatzen ditugunak, Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, kulturaren transmisioa bideratzen dutenak baitira, familiarekin batera. Hor daukagu okerrik handiena. Buelta handia eman behar zaio irakaslearen estatus eta errekonozimenduari, eta bere garrantzia itzuli; irakaslea erreferente bat da edozein pertsonaren bizitzan. Lehenengo urteetan, aita eta amarekin batera, andereñoa da hauraren eredu. Hor badugu hutsune bat: momentu honetan gizon gutxi dago maisutzan. Eta denok dakigu genero-ereduak imitazioz eraikitzen ditugula, hein handi batean. Eredu maskulinoa behar dugu, gizonezkoak behar ditugu. Gutxi daude, hain zuzen gizartean maisu izatea ez delako arrakastatsua, ez delako inportantea, askoz prestigio handiagoa du ingeniari batek, edo ekonomista batek.

Mendeurreneko ospakizunetan Francesco Tonuccik hartu du parte. Zer arrasto utzi dute ikasleen artean haren ideiek?

Arrakastatsua izan da, jendetza etorri zen Tonucci entzuteran. Bere diskurtsoa oso erakargarria eta aurrerakoia da, baina ez dakit noraino den berria. 1920-30 urteetan Elbira Zipitriak eta harekin ibili zirenek horrelako metodologia aktiboak erabiltzen zituzten, haurra gaur egun baino askoz protagonistagoa zen. *La lengua de las mariposas* filmean garbi ikusten da Errepublika garaian zer nolako garrantzia ematen zitzaion ikasleari, deskubritzeari, kalera irteeari. Hori gaur egungo eskolan desagertu da. Tonuccik esaten du hiria eta herria umeara egin behar direla. Bai, eta egingo da. Baina gaur egungo umeak eta bere garaikoak desberdinak dira. Tonucciren garaiko umeek seguruenik auto gutxiko kalea ezagutu zuten, bizikleta

norbaitek izango zuen baina ez denek, joango ziren errekarara, igoko ziren arboletara... Gaur egun haur horiek kale artean daude, familiak etxean edukitzen ditu neurri handi batean, eta aisialdia guztiz zehaztuta dago: kirola egitera, parkera... Askatasun hori desagertu egin da. Baina, hau ere esan beharra dago: zenbat haur dauzkagu Euskal Herrian? Horrek kezkatuta nauka, ez daukagu seme-alabarik, eta hemen gabiltza, mundua konpontzen, lehengairik ez dugunean. Europako seme-alaba kopururik txikiena dugu. Beraz, gure ugalketa ataka larrian dago.

Zein da une honetan Maistren Eskolaren egoera, eta zein dira erronkak?

Gure eskolak 1.850 ikasle ditu, gutxi gorabehera. Espazioaren aldetik asko hobetu da, oso gustura gaude eraikin honetan orain, leku aproposa da: Leioako campusean gaude, beste fakultate batzuekin harremanean...

Boloniako plana antolatu genuenean, metodologia berritzailetan murgildu ginen. Horren emaitza onak jasotzen hasi gara, eta rankinetan oso ondo kokatuta gaude titulazio aldetik. Bide horretan jarraitzea da erronketariko bat.

Curriculumaren aldetik, nire iritzia pertsonala da beste hausnarketa bat beharrezkoa dela. Euskal Herriarekin lotutako zenbait arlotan, eta bereziki euskararen arloan. Errealitate paradoxiko bat bizi dugu: lortu dugu Karrantzako 14 urteko haurrak euskalduntzea; lortu dugu gaur egun ikasle gehienek euskaraz jakitea, hobeto edo okerrago; lortu dugu maisu-maistra izateko %25 (30 kreditu) euskaraz ikasi beharra derrigorrez, eta hori lorpen handia da, nire ustez. Baina horren aurrean ez da jendea euskaraz mintzo, eta gizartea gero eta erdaldunagoa da. Oinarrian euskaraz jakin edo euskaraz komunikatzen ikasita gauden arren. Ez dugu eraikitzen errealitate berria euskaraz, erdaraz baizik.

Lehen salatzen genuen euskaraz ikasten genuena itzulita zegoela, euskaratutako erdal kultura zela, eta hori ez zela gakoa. Euskal errealitatetik eraiki behar dugu



gure curriculumuma, euskaraz. Hori da gakoa. Edozein hizkuntza bere kulturarekin uztartuta dago, eta zentzu horretan, sistema horretan eraiki behar da. Bestela ez dago erreproduziorik.

Ahokotasuna bizirik zegoenean, gure mundu erreferentziala euskalduna zen; 1985etik aurrera, beherantza goaz. Bukatu ziren proiektu pedagogikoak, eta hasi ziren argitaletxeak. Baina bertako argitaletxeek ez zuten ahalmen ekonomikorik merkatuari aurre egiteko. Ez dago konpetentzia egiterik Santillanari, esaterako.

Horrekin batera, eztabaidetan gogortuta gaude: zer da curriculumuma? Zelan egin behar da? Begoña Bilbao, Karmele Perez Urraza eta ni neu oso kritikoak gara zentzu batean egin diren ahaleginekin. Ahaleginak egin behar dira, eta egin dena ondo dago, baina uste dut egin diren teorizazio batzuk oso arriskutsuak direla, hain zuzen, ez dutelako eraikitzen euskal errealitatek etorkizuna. Euskal nortasun horren ardura eskolari utzi diogu, ahokotasuna bukatu den momentutik. Erdaraz alfabetatzen hasi ginen, eta horrekin batera sartu zaigu elementu oso importante bat gure sukaldetan: telebista.

Telebista erdaraz ikusten da, gehienetan. Horrekin batera beste eragile garrantzitsu bat sartu da gazteen artera: teknologia berriak. Hortik edaten dutena auskalo nork kontrolatzen duen, baina gehiena patrio kultural hegemoniko batetik edaten dute, gauza askotan espainolez —Ipar Euskal Herrian, frantsesez—, eta beste batzuk ingelesez. Munduko jauntxoak une honetan horiek dira guretzat.

Orduan, zer erreproduzitzen dugu? Etxean oso finko ez badago euskal nortasun hori, eta eskolak ez badu hori berrindartzen, dibortzioa dago. Eta dibortzioaren ondorioz, zatiketa dator.

80ko hamarkadako mezua zen euskaldundu behar genuela jendea; euskaldunak jada ez dira bakarrik leinuz datozenak, Sabino Aranak zioen moduan, baizik eta 60ko hamarkadako pentsamentu iraultzaren ondorioz euskalduna da euskaraz ikasten duena, mintzatzen dena eta bertan lan egiten duena, nahiz eta kanpotik etorria den. Hemen bizi diren guztiak euskaldunak izango dira baldin eta euskara ikasten badute. Nola ikasi? Eskolaren bidez. Eskolak egin du hizkuntza irakatsi, baina

ez kultura transmititu. Hor badugu beste dibortzio bat.

Ni sartu nintzenean magisterio eskolan, 1983an, ordubeteko klasea egiten genuen euskaraz. Gaur egun dena euskaraz ikasten da, aldaketa izugarria izan da arlo horretan. Orduan oso hedatua zegoen zera esatea: “a, txikitxoekin lan egin behar duzu? Trankil! Euskara apurtxo bat jakinda nahikoa da”. Eta horren eredu traketsa umeak peto-petoan hartzen du; umeak ez du berbarik egiten baina dena artxibatu egiten du. Askotan haur txikiekin jarri ditugun hizkuntza-ereduak oso murrizak izan dira. Oraingo erronka da hizkuntza-eredua hobetzea, kasu batzuetan, eta kultur-eredua osatzea, transmisioa bideratu ahal izateko.

Eskolak hizkuntza irakatsi du, baina erreferentzia kulturalik gabe?

Ez, erreferentzia kultural erdaldunekin. Erreferentzia kulturalak irakatsi egiten dira. Hor beste gai bat dago: mespretxu bat egon da. Testu-liburuetan euskalduntasunari buruz dauden erreferentziak zaharkituak dira: mundu zaharra da, rurala, ez da moderno, ez da erakargarria, artzaintza, kaikua,

gurutze ezkurdia

E

“ Hemengo gatazka nagusia ez da politikoa, kulturala baizik. Noiz egon da euskal kultura kinka larrian? Oraitxe bertan ”

“ LOMCEri aurre egiteko, Jaurlearitzak eta eragileek adostutako gutxienerako oinarri batzuen gaineko pakto bat beharrezkoa da, eta erresistentzia zibila ”



txalaparta... Hori horrela irakatsita, bere idiosinkrazia guztiarekin ez baduzu irakasten, mespretxurako baino ez du balio. Eta gaur egungo exekutiboan artean asko euskaraz mintzo dira, baina ez dira euskal mundu horretatik hurbil, batzuk kenduta. Esaterako, EHUko errektorea dantzaria da, euskal kulturaren erreferente bat da, eta hori goraiatzekoa da. Niretzat behintzat oso inportantea da. Paulo Iztuetak dio Bilbo euskalduntzen dugunean eta goi mailako jendea euskalduntzen dugunean euskarak eta euskal munduak aurrera egingo dutela. 30 urteren buruan, lortu dugu gazte gehienek euskara ezagutzea, eta unibertsitatean goi mailako ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izatea. Horrek eroan behar gaitu erabilera planteatzera. Nire ustez, hurrengo erronkak erabilera eta kulturaren transmisioa dira. Hemengo gatazkarik handiena ez da politikoa, kulturala da; munduan dauden gerrak, oinarri-oinarrian, gerra kulturalak dira. Lehengo egunean eduki genuen hemen NBEen dauden herri indigena batzuetako ordezkariak, eta haien errealitatea ere gatazka kulturala da, batez ere. Eta, nire ustez, gurean ere etorkizuneko gatazka

hori izango da oinarrian, gatazka kulturala, eta politikoa neurri batean ere bai. Euskal Herriak ez du izan botererik 500 urtean, baina mantendu du bere kultura. Noiz egon da kinka larrian euskal kultura? Oraitxe bertan.

Irakaslearen formazioari dagokionez, unibertsitatean zein eztabaida daukazue mahai gainean arlo pedagogikoan?

Nik uste dut curriculumaren egokitzapen batzuk behar direla, esaterako, matematika gehiago irakatsi beharko litzateke; hezkuntzaren teoria eta historia oso gutxi irakasten da, euskal irakaskuntzaren historia eta izan diren teoria pedagogiko inportanteenak irakatsi behar dira, eta horretarako denbora pixka bat gehiago beharko litzateke.

XXI. mendeko ikasleak heziko dituzten irakasleak prestatzen ari zarete. Nolakoa izan behar du etorkizuneko irakasleak?

Galdera zaila da, ideologikoki ñabardurak egin daitezkeelako. LOMCEk beste modu bateko irakaslea eskatzen du baina nik uste dut behar duela izan Euskal Herriko

kulturan murgilduta bizi den pertsona bat; argi izan behar du haurra dela pertsona zoragarri bat, baina ezin zaiola kalterik egin, askatasuna eman behar zaiola. Tonucciren haritik edan behar da, baina baita Montessoriren haritik, Fraineten haritik eta pedagogo handien haritik ere. Uste dut berreskuratu behar dela, ez bakarrik irakaslearen partetik gizarte osoaren partetik baizik, naturarekiko harreman orekatua; hizkuntza aberatsa irakatsi behar da, eta euskara eta euskal kultura oinarritutako eredu bakarra; teknologikoki ondo prestatua baina oso kritikoa. Gizarteari buruzko iritzi kritikoa dituen irakaslea behar da, non dagoen, zertarako egiten duen lan, zer lortzen duen bere lanarekin... bere buruaren jabe den irakaslea behar dugu. Hori argi dago.

Errealitatera etorrira, gaur egungo ikasleek zein perfil dute?

Dauzkagun ikasleak ondo prestatuta daude, goi mailako ikasleak ditugu, eta abila dira. Behar dute heldutasun bat, behar dute indibidualismotik haratago joan eta ulertu gizartean maila kolektiboan lortzen direla gauzak. Guk horretara bultzatzen ditugu, ikasketak lan taldeetan egitera, arlo kolektiboan indartzera, oso indibidualistak direlako. Baina bakoitzak bere bidea egin behar du eta egingo du.

LOMCE aipatu duzu. Zein iritzi duzu, irakasle eskolaren ikuspegitik, Espainiako Gobernuak onartu berri duen hezkuntzaren erreformarako legeari buruz?

Ez dizut ezer berririk esango: atzerakada bat da. Nazionalkatolizismoaren ideiak berreskuratzen ditu, eta batzuek diote 70eko Ley General de Educación hartara goazela. Nondik hasi? Sexu banaketaren gaia planteatu da berriz. Neska eta mutilen arteko segregazioa. Hausnarketa inportantea da, batez ere gizonezkoen porrota ikusita hainbat arlotan... Baina LOMCEk gaia planteatzen duen ere atzerakada bat da. Sumatzen dut gizonezkoak porrot handi bat jasaten ari direla zenbait arlotan, batez ere

akademikoan. Lehengoan diploma banaketa batean egon ginen, medikuntzan, eta ez dakit %10era heltzen ziren gizonezkoak. Zergatik da hori? Non dago porrota? Zergatik sartzen dira unibertsitatean emakumezko gehiago gizonezkoak baino? Galdera asko dago, eta beharbada hezkuntza sistemak zenbait gauza pentsatu beharko ditu. Beti ere gogoan hartuta gizarte misto batean bizi garela.

LOMCErekin jarraituz, azterketa izango da helburua, eta ez pertsonaren ongizatea. Ikasi behar da errentabilitate bat lortzeko, eta ez pertsona helduagoa eta osatuagoa izateko. Merkatura bideratutako ikasketa bat da, azterketa konpetitiboa, produktibitatea eta konpetitibitatea bultzatzen diren heinean desberdintasunak bultzatzen ditu, eta elkartasuna eta modu kolektiboak alde batera uzten ditu. Gaur dugun gizartea inoiz baino indibidualistagoa da, sistemak hori bilatu duelako, ez du nahi gizabanakoak, oso ahula dena bakarrik dagoenean, elkartasunik garatzea eta modu kolektiboak eraikitzea. Beraz, lege honek horretan eragina izango du. Azterketak horretara eramaten gaitu, konpetitibitatera, bestea baino gehiago izan nahi izatera.

Guk etengabeko ebaluaketa bultzatzen dugu, oso konplexua eta konplikatu dena, azterketa egiten da, baina badago beste ibilbide bat ebaluaketa egiteko.

Gurasoen partehartzea txikiagoa izango da LOMCErekin, boterea galduko dute, zentralizazio handiagoa, ikastetxeek autonomia galduko dute... Horrez gain, hizkuntza koofizialak bigarren mailara kartzten dira, eta hori guretzat oso kaltegarria da. Errendimendu akademikoa saritu egingo da, beraz, azterketetan onenak direnak saritu egingo dira eta txarrenak zigortu. Horrek ekarriko du onenak beti izatea baliabide gehien dutenak, alegia, aberatsak, eta gutxien dutenak, pobreak. Desberdintasun sozialak gero eta handiagoak izango dira.

LOMCEri aurre egiteko, zer egin daiteke?

Guk ezin dugu legearen gainetik pasa,

gure historiaren patua hori da. Tamalez, Espainian egoteak baldintzatu egiten gaitu, Espainian gobernu bat datorren bakoitzean hezkuntza lege berria egiten du. Horrek ematen du ezegonkortasun estrukturala, ez dira kapaz estatu paktu bat egiteko hezkuntzaren inguruan. Horrek kaltertu egiten gaitu zuzenean. Nik uste dut orain lortu duguna ezin dugula galdu.

Uste dut errexisistentzia zibila ere beharko litzatekeela. Zenbait gauzatan derrigor ezarri beharko da legea, baina beste gauza batzuetan gure bidea egiten jarraitu beharko dugu, orain arte egin dugun bezala. Ikastolekin erresistentziako bideetan hasi ginenean, Francoren erretratua jarri behar zen, eta jarri genuen, azken batean erretratu batek ez du kalterik egiten, baina guk euskaraz ikasi genuen, euskal kultura. Nik *Xabiertxo*-rekin ikasi nuen irakurtzen.

Jakin behar dugu gauza garrantzitsuei aurre egiten, eta anekdotikoak alde batera uzten.

Erresistentzia zibila aipatu duzu. Katalunian, esaterako, intsumisiorako deia egin zuen Generalitateak.

Hiru magisterio eskola publiko daude, gehi hiru pribatu. Eta Nafarroan beste bat. Formakuntza horretan adostasunak negoziatu egin behar dira, ez dira nolnahi lortzen. Baina uste dut paktua euskal gizartean egin behar dela, behar dela hezkuntzaren inguruko paktu bat egin, baina ez dakit nola. Eusko Jaurlaritzak jakin behar du zein hezkuntza-eredu nahi duen, eta bestetik eragile ezberdinak daude, norbere ereduak. Oinarri batzuetan bat egin behar da: euskara, euskal kultura... Hori bermatu behar dugu. Praktikoak izan behar gara, minimo batzuk adostu eta horrekin aurrera egin eguneroko lanean.

Harrituta gaudela esango nuke, harri bihurturik, geldi. Harrituta gaude azken aldaketekin, eta ez dugu erantzun bat emateko zirkinik egin. Eta hasi beharko da zirkin egiten. Baina hemen ikasleen mugimenduek porrot egin dute, ez dago ikasle mugimendurik, eta horrek kezkatzen nau.

PARTAIDETZA:

gurekin bada, izango da (eta IX)



Marije APODAKA,
Gotzon QUINTANA
eta Bea UGARTE

II.7 tresna. Nire mundua eta ni



II.7 tresna.Nire mundua eta ni (jarraipena)

Puzzlearen piezak elkarren mende daude, gure bizitzako piezak bezala. Agian, hemen ageri direnak baino pieza gehiago daude edo egongo dira zure bizitzan; horregatik, puzzle hau beste hainbat formaren bidez osatzen joan daiteke. Orain, egin dezagun gogoeta horietako batzuei buruz. Pentsatu eta idatzi (ez du zuk beste inork irakurriko):

- Nola dago edo nolakoa da zure bizitzako atal hori?
- Zer-nolako ahalmena duzu berorren gain?
- Zutaz gain, bada zure bizitzako atal horretan eragina duen beste inor? Zer egiten du horretarako? Nola sentitzen duzu hori?
- Pieza horietako bakoitzak beste zer piezarekin du harremana?

LAGUNAK	
FAMILIA	
IKASKETAK	
GAZTE-GUNEA	
NIRE IDEIAK	
NIRE OSASUNA	
INTERNET	
JARDUERA FISIKOA	

II.7 baliabidea. Ahalduntzea

Ahalduntzearen definizioak.

www.gizonduz.net

1. Ahalduntzea terminoa ingelesezko empowerment kontzeptuaren itzulpen literala da, eta pertsonen edo taldeen "ahalmen gehiago izatea" esan nahi du, hau da: posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea. Emakumeen eta gizonen berdintasuneran tes-tuinguruan, emakumeek beren buruen eta taldearen kontzientzia hartzearen prozesuarekin dago lotuta; kontzientzia hartzeak auke-ra ematen die erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartze handiagoa izateko, agintera errazago sartzeko eta eragin handiagoa izateko. (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, Emakunde).
2. Gizonen eta emakumeen beren bizitzaren kontrola izateko egiten duten prozesua adierazten du: beren agendak ezartzen dituzte eta gaitasunak lortzen dituzte (edo beren gaitasunengatik eta ezagutzagatik baloratzen dituzte), autoestimua hobetzeko, arazoak konpontzeko eta autogestioa garatzeko. Prozesua eta emaitza da. (INSTRAWetik hartua, IDRC 1998n dago oinarrituta).
3. Emakumeek beren bizitzetan aukeraketa estrategikoak egiteko gaitasun gehiago izatea gaitasun hori mugatuta egon ohi zen tes-tuinguruetan; hori ere esan nahi du (INSTRAWetik hartuta. Kabeer, N. "Reflections on the Measurement of Women's Empowerment" en dago oinarrituta).
4. Genero-ikuspegiaren kontzeptu nagusia. Emakumeen posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea hartzen du barne. Bere helburua sexuen arteko botere-harremanak gutxitu edo ezabatzea da. Garrantzitsua da botere terminoa "zerbaitetarako botere" gisa erabiltzen dela azpimarratzea –adibidez, gizarte-harreman batzuetan edo guztietan eragina, boterea eta buruzagitza izateko bakoitzaren gaitasun eta trebetasunak aintzat hartzea eta horren arabera aritzea–, eta ez beste pertsonengan izan dezakegun boterearen arabera. ("Aurrekontu Publikoak Genero Klabea", Emakunde).

II.8 zk.	Botere-abusua eta diskriminazioa
Deskribapena	Gure erantzunak taldeko gainerako kideei adieraziko dizkiegu eta haien erantzunekin alderatuko ditugu, boterearen, gerta daitekeen botere-abusuaren eta berorren ondorio negatiboan inguruan (umiliazioa eta diskriminazioa) gogoeta egiteko
Teknika	Zirkulu zentrokideak
Materialak	II.8 tresna
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Garrantzi handia du boterearekin eta ahultasunarekin lotutako irudiak lantzeak. - Hainbat sineskeria baztertu behar dira, besteak beste, "inork zuri eman aurretik, eman zuk lehenengo", "ez erakutsi ahuleziarik, "gizakia indartsua da", "ahulek partekatzen dute soilik", "akordioa ahulen kontua da"... - Norberaren erantzukizun mailak mugatzea komeni da, horrela, erruduntzat "botere handi eta kontrolaezinak" hartuta errua ez egozteko beti besteei eta inhibizio edo konformismorako joerak ez indartzeko. 	
Garapena (Juan de Vicente Abad, in J.C. Torrego (2008), El Plan de Convivencia, Alianza)	
<ul style="list-style-type: none"> - Binaka, gogoeta egingo dute eta jolasa prestatuko dute, fitxan proposatzen diren jarduerak osatuz. Fitxak ez dira eramango zirkuluetara, baina ondo osatu behar dira, dinamikan parte hartu ahal izateko gero. - Dinamikari ekingo diote. Ikasleen erdiek, zutik eta kanpoaldera begira jarrita, zirkulu bat osatuko dute; eta beste zirkulu zentrokide bat osatuko dute gainerakoek, barrura begira. Beraz, pertsona bakoitzak beste bat izango du aurrean, lanean bikotekide izan duena edo beste edonor. Ikasleen kopurua bikoitia ez bada, dinamizatzailea ere zirkuluan sartuko da, edo ikasle bat aterako da zirkulutik, jarduera zuzendu dezan. - Fitxetako galderak planteatuko dira, eta bikotekideek beren erantzunak komentatuko dizkiote elkarri. Handik pixka batera, agindu bat emango da, eta zirkuluaren kanpoaldean daudenak nahiz barruan daudenak aginduan adierazi adina toki harantzago mugituko dira, esaten zaien noranzkoan; horrela, beste pertsona bat izango dute aurrez aurre, eta hurrengo galdera planteatuko da. - Hauxe da mezurik garrantzitsuenak: "gogoan hartu gehien gustatu zaizkizun erantzunak, amaieran komentatzeko". - Eseri egingo dira, jarduerari buruz hitz egingo dute, eta fitxa pertsonala osatuko dute, gauza berriak entzun direla kontuan hartuta. Bete gabe utzitako atalak beteko dituzte edo taldeak egindako ekarpena interesgarria iruditu zaielako aldatu nahi dutena aldatuko dute. 	

11.8 tresna. Botere-abusua eta diskriminazioa

Gero, talde handian garatuko dugun dinamika prestatuko dugu, honako jarduera eta esaldi hauek osatuz. Ez badakizu zer esan, zoaz hurrengora, eta, prozesua amaitzean, eskatu laguntza puntu guztiak osatzen ahalegintzeko. Esaldiren batekin ados ez bazaude, azaldu zergatik eta aldatu proposamena.

Bilatu "pertsona ahaltzu" esapidearen sinonimo bat:
Eman "pertsona ahularen" adibide bat:
"Boterea" adierazten duen irudi edo objektu bat:
"Boterea" adierazten duen soinu bat, musika bat, zarata bat:
"Boterea" adierazten duen keinu bat, jarrera bat:
Pentsatu "pertsona ahaltzu" izanda egin dezakezun gauza bat:
Pentsatu "pertsona ahula" zarelako egin ezin duzun gauza bat:
Pertsona ahaltzu sentitzeak dakarren gauza on eta positibo bat:
Zeure burua pertsona ahul gisa ikusteak dakarren gauza txar bat:
Boterea positiboa da egoera honetan:
Nik botere gehiago izateko, beste norbait zapaltzea.....litzateke
Adierazi zure hitzekin "botere-abusua":
Botere-abusua ikusten den egoera bat:
Umiliazio-egoera bat:
Eskolako tratu txarrekin lotutako egoera bat:
Etxeko tratu txarrekin lotutako egoera bat:
Munduan tratu txarrekin lotuta dagoen egoera bat:
Nire harremanetan, ez zait gustatzen:
Norbaiti tratu txarra ematen ari zaizkiola ikusten dudanean:
Nire taldean, "ahultzat" hartzen da norbait horrelako egoera batean:
Nire taldean, "gogorra" izan beharra dago, bestela...
Horrelako egoeretan laguntzea gustatzen zait:
Lagun ona da hau egiten duena:
Norbait umiliatzen ari direla jakingo banu, salatu egingo nuke, arrazoi honegatik:
Norbaitekin gehiegikeriaz jokatzeko ari direla ikusi arren, ez naiz ausartzen...
"Diskriminazioa" adierazten duen irudi bat, gauza bat:
"Diskriminazioa" adierazten duen soinu bat, musika bat, zarata bat:
"Diskriminazioa" adierazten duen keinu bat, jarrera bat:
Pentsatu "pertsona ahaltzu" izanda egin dezakezun gauza bat:
• <i>Zerbait erantsi nahi duzu?</i>

Orain, emaitzak talde handian partekatuko ditugu, bi zirkulu handi osatuz; ematen dizkiguten erantzunei erreparatuko diegu, eta gogoan hartuko ditugu harrigarrienak edo interesgarrienak iruditzen zaizkigunak.

II.9 zk.	Intimitaterako eskubidea: egunerokoa
Deskribapena	Kasuak ebatziz eta eguneroko bat irakurriz, gogoeta egingo dugu intimitateari buruz, pertsona guztiok beharrezkoa baitugu intimitatea.
Teknika	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezkoa ikustea. - Egunerokoaren irakurketa. - Talde txikitan: kasuei irtenbidea aurkitzea.
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Giza eskubideak: http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq - II.9.1 eta II.9.2 tresnak. - II.9 baliabidea. - Rodríguez Sanchez, Sibisse (2008) <i>Las decisiones de Sandra</i>. Madrid: Emakume Gazteen Federazioa. Hemendik jaits daiteke: http://www.mujeeresjovenes.org/quienes_somos.php
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Intimitaterako eskubidea, 12. Giza Eskubidea (II.9 baliabidea). - Bikote gazteen artean tratatu txar psikologikoak zer diren aztertu beharko dute irakasleek. Horretarako, Deustu-San Ignazioko Arreta Psikosozioko Moduluko Emakume Zerbitzuaren txosten hau erabil dezakezue: <i>Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo</i>. (2009) Harremanetarako: http://www.minoviomecontrola.blogspot.com/ - Estilo asertiboa (II.9.2 tresna). 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Pertsona guztien intimitaterako eskubideari buruzko film labur bat ikusiz hasiko dugu jarduera hau. Ondoren, elkarrizkeren sentitu duzuen kontatzeko denbora tarte bat utziko dugu: zer sentitu duzue?, zer iruditu zaizue?, ezagutzen al zenuten eskubide hori? - Iruzkinak egin ondoren, hiruzpalau laguneko talde txikiak osatuko dira, II.9 tresnako kasuak aztertzeko. - Bi kasuetako bakoitzari zer irtenbide eman dieten adieraziko dute guztiak. - Irtenbide guztiak entzun ondoren, onena aukeratzen saiatuko dira, irizpide hauek oinarri hartuta: intimitaterako eskubidea errespetatzen du, protagonista den pertsonaren desioak errespetatzen ditu, zer nahi duen modu asertiboan adierazten du. - Eguneroko bat zer den jakiteko, honako eguneroko hau irakurri dezake norberak: Rodríguez Sánchez, Sibisse (2008) <i>Las decisiones de Sandra</i>. Madrid: Emakume Gazteen Federazioa. Irakurtzeko denbora pixka bat emanez gero, saio bat eguneroko horren inpresioak eta edukiak aztertzea zuzen daiteke. - Pujana, Ibai: Egunon printzesa! http://vimeo.com/32735173. Urtxintxa Eskola. 	

II.9 baliabidea. Intimitaterako eskubidea

Intimitatea kanpotik behar ez den pertsonaren zatia da, pertsonari soilik dagokiona. Norbanakoaren eremu pribatuaren barnean txertatzen da pertsona horren datu pertsonalekin, harremanekin, osasunarekin, postarekin, komunikazio elektronikoko pribatuekin eta abarrekin lotutako edozein informazio.

Beste pertsonak beren bizitza pertsonala, hau da, beren sentimenduak eta jarrerak, ezagut ez ditzaten pertsonak duten eskubidea da. Pertsona batek eskubidea du kontrolatzeko hainbat alderdi pertsonal nork ezagutu ditzakeen eta noiz.

Pribatutasuna pertsona baten bizitzako alderdirik sakonena da, pertsona horren sentimenduak, familia-bizitza edo adiskidetasunezko harremanak hartzen dituena. *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren* 12. artikulua hauxe dio: “Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatua, familia, etxean edo postan sartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea”.

(<http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq>)

II.9.1 tresna. Kasuen azterketa

Taldeka, irakurri bi kasu hauek, eta eman zuen iritzia. Gogoratu botere pertsonalari buruz egin dugun lanaz eta intimitaterako eskubideaz esan duguna.

1 kasua: neska-laguna kontrolatzen duen mutila

Neska bat ohartzen damutil-lagunak sakelako telefonoko dei guztiak kontrolatzen dizkiola. Elkartzen direnean, mutilak galdetzen dio berarekin egon ez denean non eta nokekin egon den. Ia beti egiten du hori, eta ez dio ezer gehiago galdetzen. Neskak ez daki mutilak zergatik egiten duen hori, kontrolatzeko edo soilik beragan interesa duelako. Apur bat nazkatzen hasita dago. Nola ulertaraziko dio intimitaterako eskubidea duela?

Gogoeta:

Aztertu kasua neskaren tokian jarrita. Haren egoeran imajinatu behar duzue zeuen burua, baina ez ahaztu mutil horrek zerbait berezia sentiarazten diola, eta mutilak behin eta berriro esan diola oso gustuko duela eta berarekin maiteminduta dagoela. Zer egin behar luke? Zer esan behar lioke?

2. kasua: semea kontrolatzen duen ama

Zuen adineko mutil bat kalera irteten denean amak karpetak, jantziak eta tiraderak, guztia miatzen diola konturatzen da. Eta larritu egiten du horrek. Nazkatuta dago! Eztabaida ugari izan ditu amarekin, eta amak haren onerako ari dela esaten dio azkenean beti, ez duela nahi semea liskarretan sartzerik, edo drogak hartzen hasterik... Zer egin dezake mutilak amari intimitaterako eskubide osoa duela ulertarazteko?

Gogoeta:

Aztertu kasua mutilaren tokian jarrita. Imajinatu zeuen burua haren tokian, baina ez ahaztu amak betetzen duen lekua ere, hura babestu eta ahalik eta ondoen hezi nahi baitu. Zer egin behar luke? Zer esan behar lioke?

Orain, talde handian aztertuko ditugu emaitzak; aukeratu zuen iritzia argi eta garbi azalduko dituen norbait.

II.9.2 tresna. Estilo asertiboa komunikazioan

Bada komunikatzeko modu bat pertsonari beren pertsonarteko helburuak lortzen laguntzen diena, etorkizuneko harremanetan kalterik eragin gabe: estilo asertiboa. Asertibotasunez jokatzean, zer nahi duzun adierazten duzu modu zuzen, zintzo eta egoki batean, eta argi eta garbi esaten duzu beste pertsonarengandik zer nahi duzun, baina errespetuz jokatzean duzu beti. Zure nahiak eta beharrak beste pertsonari modu argi eta zehatzean adierazteko abilezia da asertibotasuna, haren ikuspuntua errespetatuz beti.

Hitzezko adierazpena:

- Jokaera sendoa eta zuzena erakusten du, bere helburua adierazpen argia eta zuzena egitea baita, inor iraindu gabe.
- Lehenengo pertsonari adierazitako mezuak erabiltzen ditu (nahi du, pentsatzen dut...)

Hizketaz kanpoko adierazpena:

- Keinu zintzoa erabiltzen du.
- Jarrera erlaxatua erakusten du.
- Ez du tentsiorik agertzen giharretan.
- Burua goian izaten du eta aurrekoari begiratzen dio.
- Beste pertsonari zuzendutako buru-mugimenduak eta begirada.
- Pertsonen arteko espazio egokia.

Beste ezaugarri batzuk:

- Bere eskubideak babesten ditu.
- Inor iraindu gabe lortzen ditu bere helburuak.
- Bere buruarekin gustura sentitzen da.
- Bere kabuz hautatzen du.
- Argi adierazten du bere jarrera zein den edo zer nahi duen.
- Ahal denean azalpen bat ematen du.
- Helburuak ditu orientabide, baina malgutasunez jokatzean du.

JARDUNALDIAK

Herri hezitzailea, eskola herritarra

Ehunka lagun elkartu gara haurra erdigunean jarriko duen eskola eta herri ereduaren inguruan hausnartzeko, eta esperientziak partekatzeko

Haurra erdigunean jarriko duen eskola eta herri parte-hartzailearen inguruan hausnarketa egitera bostehundik gora lagun bildu ziren *Herri hezitzailea, eskola herritarra* jardunaldietan. Irakaskuntza munduko langile eta ikasleez gain, alor ugariak behargin, ordezkarri eta teknikariak batu ziren, Donostiako Kursaal jauregian. Francesco Tonucci 'Frato' psikopedagogo italiarra izan genuen gurekin bi egunetan. Donostiara etorri aurretik, *Città dei bambini* liburuaren euskarako itzulpena aurkeztu zuen Tonuccik Arrasaten, Txatxilipurdiren eskutik.

Lorea Agirrek eman zien hasiera jardunaldiei, haurrei entzun beharraz eta hitza emateaz aritu zitzaigun, eta, ondoren, hari horri heldurik, Tonuccik jolasteko premia, kontrolrik gabe eta libre jolastearen garrantziaz, parkeez, arriskuez gogoeta egin zuen. Gogoeta horiek Euskal Herrira, zehazki Donostiara, ekarri zituzten ondoren Alfredo Hoyuelosek eta Txusma Azkonak. Ezagutu genituen, halaber, Euskal Herriko hainbat esperientzia, hala nola, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkartearen proiektua, Oarsoko Irrien Klubekoa, Ordizia hiri hezitzailekoa...

Hurrengo egunean, Koldo Telleria Hiri kolektiboko arkitektoak hirigintzari buruzko hausnarketa egin zuen, eta Tonuccik hartu zuen hitza jarraian, guztiontzako eskolaz mintzatzeko. Gero, Hur Gorostiagak Iparraldeko ikastolen egoeraren erretratua egin zuen, eta jarraian Gipuzkoako Eskola Txikietako esperientziak eta Dima eta Aitor ikastolakoak ezagutu genituen.



Goian, ezkerrean, hik hasi-ko Joxe Mari Auzmendi MUko Lorea Agirrerekin. Eskuinean, Tonucci Zarauzko haur batekin. Behean, hik hasi-ko Kontxi Aizarna jardunaldiak aurkezten, eta mahaian, Jaurlaritzako Begoña Garamendi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Arantza Ruiz de Larrinaga eta Donostiako zinegotzi Naiara Sampedro.



Tonucci, Donostiako Udaleko zinegotzi eta teknikariek egindako bileran; eskuinean, Zarauzko adineko eta haurrak, jardunaldietan parte hartu ondoren



Kursaaleko aretoa lepo bete zen ostiralean eta larunbatean, 'Herri hezitzailea, eskola herritarra' jardunaldietan.



Ezkerrean, Tonucci Pasai Donibanen, Oarsoaldeko haurrekin (Mendi Urruzunoren argazkia); eskuinean, Txusma Azkona, Tonucci eta Koldo Telleria.



esperientziak

GURASOAK IRAKASLE

Gurasoak gelara sartu dira Lekeitoko Eskolan, eta eredu aniztasuna bultzatzeaz gain ikas-komunitatea eraikitzen lagundu dute.

XABIER ITURBE
LORENA AMUTXASTEGI

Azken hamarkadetan Europan egindako hezkuntza-ikerketarik garrantzitsuenak azpimarratu duen modura *–INCLUD-ED, Hezkuntzaren bidez Europan inklusio eta kohezio soziala lortzeko estrategiak (2006-2011)–*, irakasle eta senideen arteko elkarlanak berebiziko garrantzia hartzen du ikasleen emaitza akademikoak hobetzeko eta ikastetxearen beraren kalitatea suspertzeko orduan.

Txostenak azpimarratzen duenez, senideen partaidetza “informazioa ematean oinarritu daiteke, edo aholkuak ematean, eta erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezitzailea ere” izan daiteke. Eta esparru bakoitzak modu diferentean eragiten du ikasleen ikaskuntzetan eta emaitza akademikoetan.

Sailkapen horren arabera, mailarik altuena eta eragin emankorrena duena “parte-hartze hezitzailea” da, hau da, senideek ikasleen ikaskuntza eta irakaskuntzako jardueretan elkarlanean aritzean oinarritzen dena, eskolako zein eskolaz kanpoko orduetan.

Senide eta boluntarioak gelan

Senideen esku-hartzeak, ikusi dugun modura, hainbat maila eta esparru hartzen ditu barnean, ikastetxeko kudeaketa eta antolaketatik hasi eta geletako jardueretara ailegatu arte. Oraingo honetan, kudeaketa, antolaketa eta funtzionamendurako erabiltzen ditugun estrategiak (geletako gurasoen ordezkariak, guraso-batzordea eta guraso-

elkartea, batzordemistoak...) ahaztu barik, gelan eta curriculumaren edo ikaskuntzaren esparruan kokatuko gara. Hau da, INCLUD-ED txostenak kalitate eta arrakastarekin lotzen duen mailarik eraginkor eta altuenean, hain zuzen ere.

Senideak gelako partaide egiten direnean, gela horrek, besteak beste, honako eragin eta eraldaketa hauek jasotzen ditu:

– Ilusioa sortzen da.

Senideek euren borondatez parte hartzen dutenean, ikasgelan eta ikastetxean ilusioa eta gogoia pizten dira. Ikasleek atseginez eta irrikaz hartzen dituzte senideak gelatan.

– Ikasteko eredu aniztasuna bultzatzen dute.

Gelara sartzen den pertsona nagusi bakoitzak irakasteko modu propioa du, eta estilo diferente horiek aukera gehiago sortzen dute ikasleen ikasteko modu desberdinekin bat egiteko.

– Ikaskuntzak hobetzen dira.

Ikasleek gehiago ikasten dute, ikaskuntza eta azalpenak pertsonalizatuak eta bakoitzaren neurrirra egokituak direlako.

– Seme-alabak harro sentitzen dira.

Eskolan elkarlanean aritzen diren senideen seme-alaba askok eta askok zentzu eta gogo handiagoarekin hartzen dituzte ikas-



Guraso bat irakasle lanetan, Lekeitoko eskolan.



ketak eta, ondorioz, emaitza akademikoak hobetu egiten dituzte.

– **Senideen autoestimua hobetzen da.**

Irakasleekin egiten duten lana balioesten dela sentitzen dutenean, senideek zentuz jarduten dute elkarlanean, eta euren buruarekin ondo sentitzeko balio die.

– **Hezkuntza Komunitatea eraikitzen dute.**

Eskolaren arrakasta ez dago irakasleen esku, edota ez bakarrik irakasleen esku. Informazio-gizaratean, kaleak, etxeak eta eskolak batera joan behar dute. Eta, horretarako, ezinbestekoa da, besteak beste, senideen elkarlan zuzen eta konprometitua.

– **Inklusioa bultzatzen du.**

Senideen parte-hartzeak baliabideak handitzea dakar eta horrek, zalantzarik ez, ikasle guzti-guztien beharrezan eta gaitasunak maila onenean gaitzitzeko aukerak areagotzen ditu.

– **Kultur aniztasuna eta bizikidetz**

garatzen da.

Lankidetzarako eta elkarlanerako aukera senide guztiengana zabaltzen dugunean, beste kultura eta jatorrien parte-hartzea ahalbidetzen ari gara, guztion arteko bizikidetz

Gelako antolaketa

Senideek geletan parte hartzen dutenean, ikasleak eta ikasgaiak antolatzeko moduak aldatzeko aukerak sortzen ari gara. Gure kasuan, gehienetan, ikasleak talde txikitan antolatzen ditugu. Adibidez, hogeita bat edo hogeita biko ikastaldea bada, bost-sei ikasleko lau taldeetan.

Kasu horretan, senidea talde txiki baten arduraduna izango da, eta talde horretako jarduerak zuzenduko ditu. Bere zeregin nagusia taldea dinamizatzea da, eta, horretarako, ikasleen arteko elkarlana bultzatuko du.

Batzuetan, talde horiek saio osoa egiten dute senidearen ardurapean (45 minutu). Baina, gehienetan, taldeak txandakatu egi-

ten dira, eta hainbat jarduera egiten dituzte saio beraren barruan. Kasu horietan, saioak luzeagoak izaten dira (ordu eta erdikoak), eta ikasle guztiak hiru txoko edo jarduera desberdinetatik pasatzen dira. Kontuz! Ikasleak eurak pasatzen dira txokoetatik, txandaka, baina senideak beti egoten txoko edo jarduera bera bideratzen.

Adibidez: Hizkuntzako saio batean hiru jardura desberdin antolatzen dira: irakurketa, idazketa eta gramatika. Jarduera edo txoko bakoitzak arduradun finkoa du (senidea edo boluntarioa), eta ikasleak hiru txokoetatik pasatzen dira saioan.

Antolatzeko modu horri “Elkarrekin-tzako taldeak” deitu diogu, eta, normalean, *ikas-komunitatearen* proiektuetan dauden ikastetxeek garatzen dituzte.

6. maila: senideak ingeleseko irakasle

Hiru senide eta praktiketako ikasle batek hartzen dute parte boluntario modura seigarren mailako ingeleseko arloan. Lau

pertsona horiek ingeleseko irakaslearekin aztertzen dute egin beharrekoa, eta horren gidaritzapean aritzen dira.

Ahokotasuna

Senide horren lana ahokotasunarekin lotuta dago bereziki. Talde txikitan banaturik, ikasleen arteko ingelesezko elkarrizketak eta elkarreaginak bultzatzen dituzte. Denbora guztian aritzen dira ingelesez berbetan, eta ikasle guztiak dute aukera berba egiteko. Halaxe diote parte-hartzaileek: “Taldea txikitan berba gehiago egiten dute, askoz ere naturalagoak direlako elkarrizketak. Gainera, elkarri laguntzeko ere prestuago egoten dira, zuzenketak eta horrelakoak egiteko...”

Senideek hainbat estrategia erabiltzen dituzte elkarrizketak eta ikasleen arteko elkarreaginak bultzatzeko. Estrategia horiek ingeleseko irakaslearekin adostu eta prestatzen dira. “Tutoreak emandako gaiak lantzen ditugu, igarkizunen edo irudien bidez, testu bat irakurri, aldizkari edo egunkarietako berri bat komentatu... Baliabide horiek hizketan egiteko aitzaki bihurtzen dira..., errazago berba egiteko...”

Motibazioa eta portaera

Lehenago esan dugun moduan, senide edo boluntarioen parte-hartzeak ikasleen gogoia eta motivazioa berpizten ditu, eta hori agerian gelditzen da lanerako duten jarrerarekin.

“Ni hasi nintzenetik, ikasleak askoz ere motibatuagoak ikusten ditut, oso pozik etortzen dira, eta beti egoten dira prest lanerako. Bueno, batzuk besteak baino gehiago, baina orokorrean oso jarrera ona daukate...”

“...Taldea txikietan lan egiten dugunez, portaera-arazorik ez da sortzen. Bi urtetan ari naiz esperientzia honetan, eta ez dut behin ere arazo larri edo esanguratsurik izan. Ikasleek irakasle modura hartzen gaituzte, elkarrenganako konfiantza eta errespetu handia sortzen da...”

Arreta pertsonala

Taldea txikiak abantailak ditu ikasle bakoitzaren beharrezan erantzuteko orduan. Ikasteko moduak, ikasmaila, erritmoak, zaletasunak, etab. errazago bideratzen



dira talde txikietan, eta hori nabarmentzen dute senide zein ingeleseko irakasleek. Halaxe dio ingeleseko irakasle batek: “Taldea handian lan egiten dudanean, ahaleginduen arren, ez da erraza ikasle guzti-guztiak modurik onenean hartzea eta bakoitzari erantzun pertsonalizatua eskaintzea. Askoz errazagoa da talde txikitan aritzen garenean, nire lana errazteaz gain, ikasleen ikaskuntzak ere nabarmen bizkortzen dira”.

Taldea txikiak ikasleen arteko elkarrekin bultzatzen ditu, eta harreman horietan sortu eta eraikitzen dira ezaguerak. Honela azpimarratzen digu senide batek: “Taldea txikietan, askotan, elkarri laguntzen diote... gu adi egotea besterik ez da behar, berba asko egiten duena pixka bat geldiarazten eta isilik edo gutxitxoago egiten duenari aukerak ematen...”

Emaitzen hobekuntza

Senide zein irakasleek ere bat egiten dute alderdi horretan. Ikasleen emaitza akademikoei gorantz egiten dute kasu guztietan. Hizkuntzaren inguruko motivazioan, eta baita haren ezagueran zein erabileran ere, aurrerapen nabarmenak ikusten dira, eta horretaz jabetzen dira ikasleak ere, eta hala adierazten dute: “Taldeen askoz ere gehiago ikasten dugu, berba gehiago egiten dugulako. Errazagoa da talde txikian berba egitea talde handian egitea baino, lotsa gu-

txiagi pasatzen duzu eta zuzenketak ere azkarragoak dira”.

Ingeleseko irakaslearen ustez, hobekuntza eta arrakasta neurtzeko, hemen esandakoaz gain, azterketak ere erabil ditzakegu: “Modu honetara lan egiteak eragina du ahokotasunean, hiztegia eta hizkuntza-egiturak menperatzeko orduan..., eta horren adierazle da ikasleek azterketetan emaitza hobekiak ateratzea, kanpokoetan zein barrukoetan...”

Sarriago egitearen alde

Ikasle, irakasle zein senideek jasotako emaitzak eta izandako esperientzia balioetsi ondoren, egoki ikusten dute honelako saiolak ugartzea, eta Lehen Hezkuntzako zein Haur Hezkuntzako gela guztietara hedatzea. Horrez gain, jabetzen dira horretarako pertsona edo baliabide gehiago beharke liratekeela. Horregatik, deia egiten diete senide guztiei, horrelako esperientzietan parte har dezaten. “Guretzat ere, gurasoontzat, oso esperientzia polita da. Guk ere eskolan lagundu ahal izateko aukera zabaltzea eta dakiguna ikasleekin partekatzea oso positiboa da, bai ikasleentzat eta baita guretzat ere”. “Ez dira damutuko. Hasieran zalantzak izan ditzakete, urduritasun-puntu bat ere bai, baina hori lehenengo saioarekin uxatzen da, eta gero oso atsegina da ikasleen aurrerapenak eta gogoia ikustea...”



4. **Hazi Hezi** kalean da: urtea egin du. Zurekin eta zuri esker jarraituko du.



Egin zaitez harpidedun!

Hazi Hezi etxerako heziketa aldizkariaren lau zenbaki etxean jaso ditzakezu, 20 euroren truke*

943 371 408

www.hikhasi.com

*hik hasi-ren harpidedunek prezio berezia daukate



esperientziak

“NIRE INGURUNEA ETA NI”

Kultura-aniztasuna lantzeko, ludotekako haurren familiak, ikastetxeak eta eskolaz kanpoko jarduerak marraztu genituen, horma-irudi handi batean

Alazne ELORZA
Nerea MANZISIDOR
AISIHEZI AISIALDI ELKARTEA

Aisihezi aisialdiko elkarte Beasaingo Berritsu eta Txelotxe udal-ludoteken eta Eizu gaztelekuaren kudeaketaz arduratzen da. Aisialdi hezitzaile baten bila, hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu. Ludoteken erabil-tzaileen hezkuntza-beharrei erantzuteko, hileko hainbat programazio egiten ditugu, eta, lanketa horietan, teknologia-berriak, eskulanak, gorputz-adierazpena eta talde-jolasak uztartzen ditugu.

Ikasturte-ikasturte, kultura-aniztasuna lantzen dugu, gure gizarte kultura anitzek osatzen baitute, eta, errealitate horri so eginez, ludotekan ere horixe landu nahi izan dugu. Ikasturte honetan gai hau nola landu pentsatzen ari ginela, ohartu ginen jatorri eta familia mota ugariak haurrak genituela gure artean, baina oso gutxi ezagutzen zutela elkar, eta ez zekizkitela ludotekan beraiekin jolasean ibiltzen ziren haur haien nondik norakoak.

Bi ludoteketan, haur bakoitzaren errealitatea ezagutu eta haren ingurunea aztertu eta landu nahi izan genuen hilabeteko programazioarekin, 4 urtetik 8ra bitarteko haurrei begira.

Gure helburuak lantzeko, hainbat ekintza prestatu genituen hilabetean:

- Norberaren errealitatea ezagutu.
- Inguruko errealitatea ezagutu.
- Bizi-ohitura desberdinak ikusi.
- Familia motak ezagutu.
- Jolaskideen eskolaz kanpoko ekin-

tzak ezagutu.

– Jolaskideen ikastetxeak ezagutu.

Horrela, bada, hilabeteko programazioaren izenburua *Nire ingurunea eta ni* izan zen. Eta, astez aste, honako ekintza hauek garatu genituen:

1. astea

Nire etxea eta ni: haur bakoitzari etxe bat eta zenbait pertsonaren irudiak azaltzen ziren marrazkiak eman genizkion; beraiek beren etxeko biztanleen edo familiako kideen irudiak aukeratu eta margotu behar zituzten, eta, ondoren, etxean itsatsi behar zituzten. Hori egin ondoren, bakoitzak pertsonaia horiek nor ziren eta etxean non eta

zergatik kokatu zituzten azaldu behar zuten. Horman itsatsi genuen haur bakoitzaren etxearen irudia.

2. astea

Ikastetxeak eta ni: herrian dauden ikastetxeak ezagutu nahi izan genituen. Horrela, haurrek aukera izan zuten herrian, euren ikastetxeaz gain, gehiago ere badaudela ikusteko eta ikastetxe guztietako haurrak lagun dituztela ikusteko. Horma-irudi erraldoi bat egin genuen, herriko lau ikastetxeak margotuz, eta, ondoren, bakoitzak bere ikastetxea zein zen azaldu zuen. Horma-irudi handi hori etxear irudien aldamenean ezarri genuen.



Beasaingo ludotekako haur eta gurasoak euren ingurunea marrazkien bidez azaltzen.

3. astea

Lagunak eta ni: haurrek eskolaz kanpo hainbat ekintza egiten dituztenez, horiek landu nahi izan genituen; ikasleei eskolaz kanpoko ekintzen marrazkiak eman genizkien, eta bakoitzak berak egiten zituenak margotu zituen; gero, azalpenak eman zizkieten lagunei. Marrazki horiek ere horman itsatsi genituen, besteen alboan.

4. astea

Ludoteka eta ni: horma-irudi handi batean, ludotekako txokoak margotu genituen, eta haur bakoitzak berari zegokion marrazkia jarri zuen, bera egon ohi zen txokoaren inguruan. Horrela irudikatu zituzten ludotekako lagun-taldea eta erabiltzen zuten espazioa.

Horma-irudi handi horrekin amaitu genuen dinamika, eta hori ere beste irudiekin batera jarri genuen. Hormako irudietan, haur bakoitzaren familia, ikastetxea, eskolaz kanpoko jarduerak eta ludotekan hau-



rrak zuen dinamika islatzen ziren. Gurasoak gonbidatu egin genituen ikustera, eta txunditurik gelditu ziren egindako lanak ikusi zituztenean.

Esperientzia polita izan zen haurrak beraien familia aztertzen eta besteei azaltzen

ikustea, ikastetxeen arteko lehia deuseztatzea horma-irudi handi bat elkarrekin eginenez, eskolaz kanpo zenbat jarduera egin daitezkeen jakitea eta ludoteka nola ikusten duten aztertzea. Asko ikasi genuen guztiok, bai beraiek eta bai guk.

Parte hartu, partekatu

Hezitzaileon ekarpenak sustatu nahi ditu *hik hasi*-k.

Zure esperientziaren berri emateko bidaliezazkiguzu ondokoak:

- Testua, bere izenburu eta sarrerarekin, eta azalpen teoriko eta ondorioekin.
- Esperientziaren hiruzpalau argazki (baimenarekin).

aldizkaria@hikhasi.com helbidera bidali

galdeidazue

Aniztasuna arazo gisa ikusi beharrean aukera gisa kudeatu ahal izateko, ze baliabide ditugu irakasleok?



Aniztasuna errealitate bat da, eskolan eta eguneroko bizitzan. Guztiok gara desberdin. Eta eskolak aniztasun hori jasotzeko gai izan behar du; eskolak ikasle bakoitzaren errealitatea kontuan hartu behar du; bakoitzaren beharrak eta gaitasunak egokitu egin behar ditu, eta ikasle bakoitzari lagundu egin behar dio. Eta horixe da eskolan eta bizitzan benetako berdintasunaren alde lan egiteko modu bakarra. Izan ere, eskolan, eta bizitzan, ezin da inor alde batera utzi, bere sexu, jatorri edota erlijioarengatik. Premisa hori erabat onartuta dago irakasleen artean, eta helburu horrekin egiten da lan Euskal Herriko eskola guztietan.

Euskal Herria askotarikoa dela esaten dugu behin eta berriro azkenaldian. Egunerokotasunean aniztasuna kudeatzen dugun eragileok aniztasun horren onurak gorai-patzen ditugu: aberastasuna da, aukera da, erronka da... Ez zaigu gustatzen gaiaren inguruan, gure inguruan hedatuta dauden oztipoen eta zurrumurruen inguruan hitz egitea. Eta hezkuntzan, gainera, aurretik aipatu dugun berdintasunaren aldeko lanarekin lotzen dugu aniztasuna ongi kudeatzea. Ikasle guztiak dira berdinak irakasleentzat, ikasle bakoitzaren alde borrokatzen da



Olatz IRIZAR
EMUN-EKO EUSKARA TEKNIKARIA

irakaslea, guztiak dituztelako eskubide berak.

Herri eta eskoletan elkarbizitza egokia aurrera eramateko, hainbat jatorritako herriarren artean ikasteko eta bizitzeko eredu propioa sortu behar da: espazio komunak sortu behar dira, komunitateak irekitzen saiatu behar dugu...

Kultura bakoitzak pentsatzeko, sentitzeko eta ekiteko modu desberdinak baditu ere, kulturartekotasunak desberdinen arte-

ko elkar-ulertzea ahalbidetzen du: elkar ezagutzeko, elkarriketak izateko, gerturatze-ko, elkarrenganako errespetua bultzatzeko, elkar ezagutzeko. Horixe da elkarbizitzarako bidea.

Baina, sarritan, onura izatetik oztipo izatera dagoen marra oso fina da, eta oso ahula. Eta, aniztasunaz ari garenean, marra hori oso kontuan hartu behar dugu. Izan ere, ezin ditugu ahaztu aniztasunak gizartean dituen etsai guztiak; eta ezin dugu beste alde batera begiratu, eskola-komunitatean ere aniztasunak trabak ekartzen dituela esaten duten sinesmenen aurrean.

Aniztasunaren aberastasunean sinetsi behar dugu, eta aniztasunak dituen etsaiak ezagutu behar ditugu, gure sinesmena sendotzeko. Bada antidoto on bat: hitz egitea, kezka partekatzea, bizitakoak kontatzea...; hausnartzea eta kontzientzia hartzea, azken finean.

Egunerokotasunak jan egiten gaitu. Eta horrela izaten da eskola-komunitatean ere. Denbora gutxi uzten diogu patxadaz hitz egiteko aukerari, hausnartzeari. Biharko, edo atzoko, egin beharreko lanak lehentasuna izaten du beti hausnarketaren aurrean. Eta, oharkabean, hitz egin gabe, hausnartu

gabe, aniztasuna kudeatzen ari gara. Eta oharkabean, aniztasunak ematen dizkigun aberastasunarekin eta memento onekin batera, zalantzak, oztopoak eta arazoak pila-tzen hasten gara.

Aniztasuna gure kaleetan sumatzen hasi garenerako, eskoletan aspaldiko gaia zen. Aniztasun hori kalean nabarmendu denerako, eskola-komunitateak bide luzea egin du aurretik. Izan ere, ikasle bakoitza modu batekoa izan da betidanik, familia desberdinekoa, jatorri desberdinekoa, bakoitzak bere ideiak ditu... Ikasleak askotarikoak izan dira beti. Ez gaur, ez atzo, ez bihar, beti. Eta irakasleak aniztasuna kudeatzen ohituta daude. Hori da beraien eginbeharretako bat, eta, gaur egungo aniztasuna kudeatzeko orduan, irakasleek balio erantsi handi bat dute: aurretik egindako lan guztia.

Hala ere, gaur egun, aniztasuna zabala goa da. Ikasle bakoitzak pertsona den neurrian dituen ezaugarri bereziei beste mota bateko ezaugarriak ere gaineratu behar zaizkie: arraza, jatorria, erlijioa, hizkuntza, adina... Eta, argi dago: egunerokotasuna kudeatzeko garaian, horrek guztiak eragina du.

Horren aurrean, aniztasunak egunero sortzen dizkigun erronkak gainditzeko, baliabideak behar dira. Eta baliabideak ez dira soilik ekonomikoak, baliabideak mota askotakoak izan baitaitezke; baina bada gai honetan asko lagunduko digun bat: kontzientzia hartzea. Gaiaren konplexutasunaren, aberastasunaren eta garrantziaren kontzientzia hartzea. Eta hori lortzeko, bide asko daude. Horietako bat hausnarketa egitea da, hausnarketa kontzientea eta gidatua.

Gainera, ez dago eskolan Euskal Herri-tik kanpoko lurretatik etorritako haurren kopurua hazi edo gehitu arte itxaron beharrik. Aniztasuna erronkatzat hartuta, gaiari aurrea hartzen saiatu gaitezke, gero, emaitza hobekia lortu ahal izateko, eta irakasle nahiz ikasleak mundu zabal honetako elkarbizitzarako prestatzeko.

Aniztasuna eskolan: geldialdi txiki bat egin, hausnartu eta aurrera jarraitu

Ikastetxeetan aniztasuna lantzeko EMUNen esperientziak 3 ikastaro edo lantegitan oinarritu dira gehienbat: *Aniztasuna aukera gisa*, *Harrera-plana eskolan*, eta *Etorritak eta enskara*.

Hiru ikastaro horiek bi ezaugarri nagusi dituzte: alde batetik, praktikoak dira, saioetatik gure lanera, gure egunerokotasunera, ekintza batzuekin itzultzeko aukera ematen digute; eta, bestetik, hausnarketa kolektiboak dira. Irakasleak elkartu, eta egunerokotasunetik pixka bat aldentzen dira, eta patxadaz hitz egiten da; hausnartu egiten da.

Aniztasuna aukera gisa

Aurrera eramaten dugun lantegi hori TELP moduluan oinarrituta dago. TELP saioetan, "hizkuntza-gatazka" lantzen da. Euskaraz bizi nahi eta ezin dutenentzako lantegia da. Euskaraz bizitzeko hautua egin dutenentzako da TELP modulua, eta TELP saioetan portaera asertiboaren bidez joatea proposatzen dugu, hori ahal den gehienetan gerta dadin. Saio horien arrakastetariko bat hizkuntza-gatazkako egoera baten aurrean nola jokatu erakustea da. Aniztasunaren gaian ere gatazkak sortu ohi dira; batzuetan, gatazka horiek ikusi egiten dira, baina, askotan, gutako bakoitzak dituen barne-gatazkak izan ohi dira. Aniztasunaren aurrean portaera bat eduki nahi dugu, baina, aurretik ikasitako guztiaren edota gizartean ikusten ditugun jarreraren eraginez, kontraesanak sortu ohi zaizkigu. Modulu honetan, gure jarrera horien arrazoiak ikusiko ditugu, aurreko irakaspenen inguruan arituko gara, eta gaur egun aniztasunaren aurrean dugun jarrera aztertuko dugu: nola pentsatzen dugun, zeintzuk diren gure aurreiritzi eta bizipenak, zein den eskolaren egoera... Aniztasuna aukera gisa ulertzeko, asertibitatearen bidea erabiliko dugu lantegi

**Aniztasunaren aberastasun-
nean sinetsi behar dugu,
eta aniztasunak dituen
etsaiak ezagutu
behar ditugu,
gure sinesmena
sendotzeko.
Bada antidoto
on bat: hitz egitea, kezka
partekatzea...; hausnar-
tzea eta kontzientzia
hartzea, azken finean**



honetan, baina TELP lantegiek badute funtsezkoa den alderdi bat: ohiko TELP modulua egiten dugunean, argi daukagu euskaraz bizi nahi dugula; gure hautua kontzientea da, eta bide horri ekin nahi diogu oztopo guztien gainetik.

Baina aniztasuna aukera bat dela ez dugu horren garbi ikusten. Ikasketa-prozesuan gaude oraindik, eta, horregatik, gure jarrerak aztertzen ditugu lehenik eta behin. Aniztasuna aukera dela sinesteko, hainbat diskurtso, erantzun eta baliabide eskaintzen dira modulu honetan zehar. Eta bada oinarritzakoa den zerbait: progresibotasun bat. Gauza guztietan bezala, beltzetik zurira ez da aldatzen egun batean, grisak daude tartean. Eta, gai honetan ere, argi ikusten da progresibotasunaren kontzeptua.



EMUNek elkarbizitarako bultzatutako lan-ildoen

abiapuntutzat euskara eta euskal kultura hartzea gomendatzen

du, gainerako kultura eta hizkuntzekiko elkarbizitza egokia bilatuz



Harrera-plana

Moduluaren izenburuak argi erakusten duen moduan, saio horietan harrera-plana lantzen dugu. Gaur egun, ikastetxe askok landuta daukate harrera-plana, baina beste askok ez dute harrera-plana inon esplizitu egin; egiten dute, baina ez dute plana idatzia. Kasu bakoitzera egokitzen dugu modulua. Ikastetxeak aurretik harrera-plana idatzia badu, moduluan zehar harrera-planari hobeak batzuk egiten dizkiogu. Eta idatzia ez badu, berriz, harrera-plana egiten dugu moduluan zehar. Dena den, eskola bakoitzeko harrera-planean sartu aurretik, hainbat kontzeptu lantzen ditugu, migrazioen eta kulturen inguruko kontzeptuak, batez ere. Migrazioen arrazoiak, Euskal Herrian izan diren migrazio-mugimenduak, gizarte-aldaketak... Kulturaren inguruan ere hitz egiten dugu, kultura zer den, zeintzuk diren ezaugarriak, euskal kultura... Argi gelditzen da saio guztietan euskarak eta euskal kulturak zubi-lana egin dezaketela eta eskoletan horretan ari direla. Kontzeptuak azaltzeaz gain, adibideak lantzen ditugu, eta, eskola bakoitzean, bertako adibideak ateratzen dira. Modu horretan, hausnarketa egiten dugu, hausnarketa konpartitua eta gidatua. Bi gai horiekin batera, ikasle etorri berrien hizkuntza gutxituen gaia ere aipatzen dugu. Izan ere, ikasle etorri berri asko hizkuntza gutxituetatik datoz, eta ezaugarri horri ez diogu behar besteko garrantzia ematen. Ikasle etorri berrien hizkuntza gutxituen gaia harrera-planean txer-

tatu izan dugu, modulua eman dugun ikastetxeetan. Ikasle etorri berrien familia batzuetan, behin baino gehiagotan ikusi ahal izan dugun moduan, jatorrizko hizkuntza gutxitua alde batera utzi ohi da. Erabaki horrek kalte egiten dio ikasle etorri berriari; izan ere, jatorrizko ama-hizkuntza ondo erabiltzea behar-beharrezkoa da hizkuntza berriak ikasteko. Gaia interesgarria da, eta garrantzitsua, eta, horregatik, ikastetxeetako harrera-planetan horri buruzko aipamena sartu ohi dugu.

Etorkinen jatorrizko hizkuntza eta HIPIen zeregina

Modulu honen ardatza hizkuntzaren irakaspena da. Ikasle etorri berrien jatorrizko hizkuntzen gaian sartu aurretik, kokapena egiten da modulu honetan. Eta, kokapenean, oinarriko kontzeptuak lantzen dira. Kulturartekotasun, migrazio, asimilazio, hizkuntza eta horrelako gaien inguruan hausnarketa egiten da, HIPIen zereginaren inguruan hitz egiten hasi aurretik. Izan ere, HIPIek egunero-egunero bizi dituzte aniztasuna eta aniztasunarekin lotutako erronkak beren lanean. Irakasle guztiek dute harrera aniztasunarekin, baina HIPIek lotura estuagoa izaten dute ikasle etorri berriekin. Hori dela eta, garrantzitsua da kontzeptu orokorren inguruko hausnarketa egitea, beraien funtzioen inguruan hitz egiten hasi aurretik. Sarreratxo horren ondoren, HIPIen funtzioen gaiari heltzen diogu. Beraien egiteko teorikoa zein den eta errealitatean zer egiten duten. Zentro bakoitzeko adibideei esker, asko aberasten da modulua. Eta adibide horien erabilera aurretik lantzen dugu. Moduluaren bukaeran, bigarren edo hirugarren hizkuntzak ikasteko estrategiak lantzen dira. Puntu horretan gaudenean, ikasle etorri berrien hizkuntza gutxituen gaia ateratzen da berriro ere. Izan ere, aurretik aipatu izan dugun bezala, bereziki garrantzitsua da gaia bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasteko unean. Estrategiak lantzearekin batera, ekintza-plan bat diseinatzeko, ikasle etorri berrientzat.

EMUNeko dinamizatzailea edo aholkularia eskolara hurbiltzen da, han lantegia emateko taldea osatuz gero. Hausnarketa eskola bereko irakasleen eta profesionalen artean bideratzen bada, emaitza askoz aberatsagoa izan daiteke, eta, horregatik, EMUNek aukera hori hobesten du.

Lantegi edo ikastaro horiek Irale programaren bidez ere ematen ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan. Programa horrek, hizkuntzaren ikuspuntua du abiapuntu. EMUNek elkarbizitarako bultzatutako lan-ildoen abiapuntutzat euskara eta euskal kultura hartzea gomendatzen baitu, gainerako kultura eta hizkuntzekiko elkarbizitza egokia bilatuz. Alegia, euskara eta euskal kulturaren garapena bultzatuko da, kulturen arteko elkarbizitza erraztuz.

Ondorioak

Krisiaren testuinguru honetan, eta murrizketak hizpide bihurtu ditugunean, ezin dugu ahaztu baliabide ekonomikoez gain badirela beste mota batekoak ere. Hori esatean, ez dugu zalantzan jartzen mota guztietako baliabideak behar-beharrezkoak direla kalitatezko hezkuntza sistema bat izateko.

Baliabide horietako bat hausnarketa egitea da, eta horixe da goian azaldutako lantegi edo ikastaroen bidez EMUNek egiten duena. Noizbehinka egunerokotasunik ateratzea komenigarria da. Bazter batean eseri eta aurretik buruan genituen kontzeptuei astindutxo bat ematea komeni da. Hori egin ondoren, egindakoaz hitz egin behar dugu, ondo egindakoaz eta hobetzekoaz. Eta, horren ondoren, aurrera jarraitu behar dugu, irmo eta iparra galdu gabe. Eta aurrera egiten laguntzeko, gure sinesmenak eta tresnak sendotu behar ditugu.

EMUNen lantegi hauek bide hori egiten laguntzen dute. Aniztasuna kudeatzea ez da erraza, baina etorkizuneko belaunaldiak hezteko erraza al da? Ilusioz betetako bide luze, zabal eta zail horretan, irakasleei laguntzen saiatzen da EMUN.

Amaitzeko, berriz aipatu nahi dut EMUNek ematen dituen lantegi edo modulu horiek aniztasunaren bidean aurrera egiteko baliabide bat besterik ez direla. Eskoletara joaten garenean, oro har irakasle gehienek aurretik beste lan batzuk egin dituztela konturatzen gara, eta aurrera begira lan-ildo berriak definitu ohi dira. Azken urteetan, hezkuntzako profesional askoren egunerokoa dago aniztasunaren kudeaketa.

EMUNen ekarpen xumea horixe izatea nahi dugu, hausnarketaren atea zabalduz eta lantegi horien bidez, aniztasuna kudeatzeko bidean jarraitzea. Eskola edo herri txiki baten leihotik mundu oso baten abe-

argitalpenak



Nire alabak ez dauka erremediorik

Antxiñe Mendizabal / Morkots
ELKAR

Iratik 14 urte bete ditu eta, denbora asko ez dela, fundamentu handiko neska zen: esanekoa, arduratsua, adeitsua, atsegina, beti umore oneko... Orain, berriz, arropaz beste aldatzen da aldariez. Batzuetan egoten da goibel antzean, burumakur, ondo ezik bezala. Haindik gutxira egon daiteke zeharo petralduta, pipermina baino errea-go. Eta begien itxi-ireki batean jarri daiteke kriskitinak baino alaiago. •



Augustoren botila

Pello Añorga / Jokin Mitxelena

GILTZA

Dena aldatu zen egun hartan gure Augustorentzat, bai, botila bat ur erosi zuenean. Izan ere, gero erosi nahi izan baitzuen bizkar-zorro bat, eta gero bizikleta bat azkar ibiltzeko, eta gero auto bat askoz ere azkarrago ibiltzeko. •



Haurren hiria

Francesco Tonucci
TXATXILIPURDI

Maider Elkoro Gabilondok itzuli du Tonucciren proposamen politikoa jasotzen duen liburua. Hiria pentsatzeko beste modu bat aurkezten du liburua, 90eko hamarkadan Fanon (Italia) abian jarritako proiektua, eta gaur egun munduko hamaika hiritan gauzatzen ari direna. Tonuccik haurra ezartzen du hiriaren erdigunean, haren beharrak aseko dituen hiri bat guztiarentzako egokia den hiria izango baita. •



Buruarinen harrapakina

Alfredo Gomez Cerda / Sara Rojo
IBAZABAL

Liskarti pirata beldurgarria ez da bakarrik zazpi itsasoetako izua. Gizon arretagabe, loti, malenkoniatsu eta, batez ere, ikaragarri negartia da. Nabigatzen eta itsasontziak erasotzen zenbait hilabete eman eta gero, etxera itzultzen da, baina, hau buruarinara, harrapakina galdu du. Orain, Oskoldunen, bere emazte izugarri eta bibotedunaren haserreari aurre egin beharko dio. •



Kaiuko bat elurretan

Lourdes Unzueta / Eider Eibar
ELKAR

Fatimatuk ez du elurra ezagutzen. Gauza zuri, fin eta arin bat dela esan diote. Handik pixka batera, galdetu duenean, negu partean, hotz egiten duenean, zerutik erortzen den zer bait dela esan diote. Bere irudimenean ez du asmatzen zehatz-zehatz elurra zer den. Neguko egun batean, ohetik jaiki eta lera bat aurkituko du sukaldean, kaiuko baten antzekoa. •



Nur eta denboraren liburua

Toti Martinez de Lezea / Juan Luis Landa
EREIN

Uda hasi eta euria ari du atertu gabe. Eguraldi honekin, Nurrek eta lagunek ez dakite zer egin. Amamak esanda, liburu bat hartzen du apaletik Denboraren liburua; liburu trokelatu bat da. Nurren arretera erakartzen du eta, magiaz bezala, Erdi Arora, Robin Hooden garaietara eramango ditu. •

... nora joango gara?

BEIREKO GAZTELUA

Bizipenetatik ingurunea ezagutzeko parada

Bost mende luzeko historia du Beireko gazteluak. Gaur egun, historiari, inguruneari eta nekazaritza-tradizioari loturiko hezkuntza-programak eskaintzen dituen aterpetxea hartzen du.

Historia luze eta biziko herria da Beire, 1212. urtean hiribildu izaera eman baitzioten, Navas de Tolosako guduan Beireko gudari boluntarioek erakutsi zuten “indarra ondrazte aldera”. Nafarroako koroaren ondare izendatuta zegoen Beireko hiribildua, harik eta Nafarroako erresuma Gaztelakoaren esku erori zen arte. Beireko gaztelua, alabaina, konkistaren aurreko eraikin neoklasikoa da, jada 1457. urteko izkribuak gazteluari buruz mintzatzen baitziren. Beireko gaztelua, beraz, Nafarroako historiaren oroigarri bizi-bizia da.

1457ko urte hartan, Joan II.a erregeak mosen Bernat Ezpeletari eman zion gaztelua, eta ondoko lau mendeetan Ezpeletako kondeen sendiaren esku egon zen. 1895. urtean, Aita Zuriek komentu bihurtu zuten, eta, 1910ean, Aita Klaritinoen esku gelditu zen, 1980. urtera arte. 1988an, lehen umeak hartu zituen Beireko gazteluak, aterpetxe bilakatu baitzen.

Beireko gaztelua lursail emankorrean kokatuta dago, eta, Nafarroako Erresumaren garaietatik gaur aterpetxe den garai hauetara arte, barazkien ekoizpenean eta ardogintzan jardun dira konde-kondesak,



fraideak eta gaur egungo egoiliarrak. Eta horixe berori da Beireko aterpetxearen erakargarritasun handiena: hainbat hektareako ortuen eta ardandegien aberastasuna, aipaturiko historia luze eta biziaren ondareaz eta ingurune naturalak eskaintzen dituen aukerez gain. Hiru zutabe horietan oinarritzen da, bada, Beireko aterpetxeak eskolaumeei eskaintzen dien heziketa-proposamena:

– Erdi Aroko historia ezagutzeko programa. Gazteluaren beraren, Beireko herriaren eta ondoko herrien —Uxue, Olite...— ondare historikoa ezagutzeko auke-

ra ematen du aterpetxeak, eta, gainera, inguruko artisautza eta Erdi Aroko monumentuak ezagutzeko programa bat dauka. Horrez gain, Beiretik Oliteko gaztelura bitarteko ibilbidea oinez egiteko aukera dago, begiraleen laguntzarekin eta azalpenekin. Oliteko gaztelua XII. eta XIV. mendeen artean eraiki zuten, eta Nafarroako errege-erreginen bizilekua izan zen.

– Ardogintzaren eta zereal jasotzearen tradizioa ezagutzeko programa eskaintzen du aterpetxeak. Nafarroako erdialdeko nekazaritza modu ludikoan ezagutarazteko programa sortu du aurten aterpetxeak.



Gazteluaren inguruko ortua eta mahasiak bisitatzeko aukera dago, eta fruituak eta barazkiak jasotzeko prozesuan parte har dezakete haurrek. Horrez gain, mahats-bilketa garaian, haurrek mahatsa jasotzeko, muztioa prestatzeko eta ontziratzekeo prozesua bertatik bertara ezagutu dezakete.

—Ingurune naturala ikusteko eta ezagutzeko parada dago, begiraleen eskutik. Aterpetxea Pitillasko urmaletik oso gertu dago, eta aterpetxetik oinez joan liteke haraino. Hezegune hau, hain zuzen ere, Nafarroako naturgune berezietako bat da, ugaztun-, hegazti- eta landare-espezie ugari bizi baitira han. Pitillasko urmalean hegaztien behatoki bat dago, urte osoan inguru hartan bizi diren hegaztiez gain —basahateak, kopetazuriak, txilinportak eta mirotzak, besteak beste—, hamaika espeziek egonaldiak egiten baitituzte urtean zehar Pitillasen, hala nola lertxunak, antzarazainak, kurriloak eta mota ugariak ahateek.

Inguruneari loturiko hiru hezkuntza-programek bizipenetik eta modu ludiko batean historia, nekazaritza-tradizioa, inguruneeko fauna, eta, noski, bertako herritarrak ezagutaraztea, errespetatzen ikastea eta balioa ematea dute xede.

BEIREKO ATERPETXEA

Aragoiko bidea, 1
31393 BEIRE (Nafarroa),
948 740041 | 679 680375,
info@bei-tu.com
www.beire.com



INFORMAZIO OROKORRA

- 130 pertsonarentzako lotarako lekua.
- Jolaserako eta hezkuntza-programak garatzeko erabilera anitzeko hainbat gela (Antzinako jolasak eta Erdi Aroko mozorroak dituzte haurrek eskura aterpetxean).
- 600 metro koadroko patioa.
- Hamar hektareako lursailak, espezie ugariak zuhaitz, landare eta animaliekin eta mahasi aberatsarekin.
- Ardandegia eta baratza.
- Bertan egindako jana.

HEZKUNTZA-PROGRAMAK

- Erdi Aroko historia ezagutzeko programa.
- Ardogintzaren eta zereal jasotzearen tradizioa ezagutzeko programa.
- Ingurune naturala ikusteko eta ezagutzeko.
- Eskulagintza zentroa.
- Kirol ekintzak.



atzeko atetik



Ainhoa AGIRREAZALDEGI

Bertsolaria

Guraso gisa zailena egiten zaidana, nire izaeraren kontrapisua bilatzea da: gauzak egiteko nire ohiko modua zalantzan jartzea. Izan ere, hurrekin gaudenean, etengabe ateratzen da argitara gure izaera, behin eta berriro, egunean nork daki zenbat aldiz. Eta izateko eta gauzak egiteko gure modu horrek hari luuuuuuuuzeei egiten die tira.

Azal dezadan argiago. Haurdun nengonean, *Amar sin miedo a malcriar* izeneko liburua iritsi zen nire eskuetara, beste hainbat libururen artean. Gustura irakurri nuen, horixe baitzen nire barruko kezka nagusienera: haur jaioberriaren behar, eskari eta nahiak unean-unean erantzun eta ase ahal izatea, gerora, “gaizki ohitutako, gaizki hezitako” haurra izango dugun beldurrik gabe. Eta lagun batek eman zidan nire kezka

Kontrapisua

horrentzako erantzunik onena: “Ainhoa, zuk alaba gaizki hezteko ahalegina egin behar zenuke, propio”.

Aski ongi ulertu nion: alegia, egunero koan diziplinak eta gauzak ongi egin nahiak nigan pisu dezentekoa dutenez, hortxe jartzeko arreta, balore ere badirela nire izaeraren atal horiek baina, baita mugatzaile ere. Eta alabari ez gehiegi erakusteko nigan hainbeste garatu diren ezaugarriak. Nahi gabe ere ikasiko baitzikit. Esaterako, ohitura gisa hartua badut iluntzetan goiz afaldu, jolastu, bainatu, ipuinen bat kontatu eta haurra oheratzea, ahalegina egiteko tarteka hurrenkera horretan zerbait aldatzeko, ez egiteko, beste era batera egiteko... Finean, “araua” hausteko.

Hezitzaile guztiok garatzen dugu, oharkabean, gure izaera hurrekin. Ipuinzalea denak, ipuinak kontatuz. Sukaldean aritzea gustatzen zaionak, jaki goxoak prestatuz. Kirolzalea denak, haurren gorputzak nekaraziz. Beti barrez ari denak, haurrari ez negarrik egiteko esanez. Ezkorra denak, gauzak gaizki irteteko arriskua bistaraziz. Munduarekin haserre dagoenak, haserre horren arrazoiak erakutsiz. Kantuzalea denak, kanta zaharrak abestu eta berriak sortuz.

Marratzen ona denak, marrazkiak eta mar-goak oparitzuz. Garbizalea denak, haurrari etengabe bere gauzak biltzeko esanez. “Besteek zer esango duten” beldur denak, behin eta berriro haurrari baxuago aritzeko oharra emanez...

Horregatik uste dut, hezkuntzaren eta hezitzaileon zeregin nagusienetako bat egoeren kontrapisua bilatzea dela. Hezkuntza sistemak, oro har, gizartearen ohituren kontrapisua bilatu behar luke: “zarata” gehiegirekin bizi garela? Bada, isiltasuna disfrutatzen erakutsi. Internet daukagunetik ez dugula bost minutuz baino gehiagoz testu berean irauten? Bada, denbora luzeko kontzentrazioa landu. Epe luzeko proiektuak ez daudela modan? Bada, horretarako behar den autokonfiantza landu.

Eta irakasle eta gurasook arreta jarri, bai geure izaeran, bai haurrenean. Izan ere, pertsonok ez gara gure izaera eta gaitasunetarako bakarrik osatzen, garatu ez ditugun gaitasunak ere bagara. Are gehiago, batzuetan, gutxien garatzen ditugun ezaugarriak lantzeko ahalegina propio egin behar genuke, pertsona orekatuagoak izateko. Eta gure haurrei askatasun-ariketa hori oparitzea da hezkuntzan herren gutxiago egiteko bide bat.



“Erosoena, gaztelaniaz egitea da, baina beti dago aukeran euskaraz egitea. Horrek sufrimendua dakar, nekea, izerdia... baina baita poza eta hainbeste gauza eder ere”

Jose Ramon Etxebarria

2013



hh

XIV. HIK HASI Udako Topaketak



Donostia. Uztailak 3, 4 eta 5

Matrikulatzeko epea amaitu bada ere, ondoko ikastaroetan izena emateko aukera dago:

Etixerako lanak gure eskolan ♦ **Besteak sendatzeko ahalmena** ♦
Eskolako bizipenak, hizkuntza-ideologia eta jarreraren eraldatzaile
 ♦ **“Coaching”** ♦ **“Kamishibai” tailerra** ♦ **Espresio tailerra: sortuz sentitu, sentituz sortu** ♦ **Ahotsaren erabilera egokia**

Informazioa: www.hikhasi.com edo 943 371 408



0 - 3 urte bitarteko hezitzaileentzako 200 ordutik gorako prestakuntza

Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakondu asmoz, bi ikasturteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean hik hasi-k. Hiru oinarri nagusi izango ditu formazioak:

- **Emmi Pikler** (koordinatzailea: Juanjo QUINTELA)
- **Loris MALAGUZZI** (koordinatzailea: Alfredo HOYUELOS)
- **Formazio pertsonala** (koordinatzailea: Alvaro BEÑARAN)

Ikaslerro bakoitzean, gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek eman-
go dute prestakuntza.

Informazio osoa eta izena emateko aukera
www.hikhasi.com helbidean